

Erabaki eskubidea

udaletara **gobernuetara**
eskoletara baratzerara
lantokira **hautestontzira**
egunero



Harpidetza bakoitzarekin,
are independenteago

ARGIAK eta EUSKAL HERRIAK

mugarik ez

Mugak sortzen dituen gastuak **gure gain** **hartu ditugu**

ARGIA n lurraldetasuna eta berdintasuna ditugu oinarri. Mugarik gabeko Euskal Herria dugu ipar eta horregatik, harpidetzen tarifak bateratzea erabaki dugu.

ARGIAren balioak praktikara ekarri eta estatuen korreo sistemek sortutako kostuen diferentziak gure gain hartu ditugu. Euskal Herriko herritar denek baldintza berak izan ditzagun.

Gure konpromisoaren koloreekin, Euskal Herria margotzen jarraitzea baitugu erronka.

ARGIA asteen behin jasotzeko aukera:
hilean 12 euro baino ez*

ARGIA hilean birritan jasotzeko aukera:
hilean 7 euro baino gutxiago **

ARGIA hilean behin jasotzeko aukera:
hilean 4 euro baino gutxiago ***

*ARGIA astero: 145 euro urtean.
Ordainketa urtean behin edo bi zatitan egiteko aukera.
46 zenbaki + 11 Larrun eta Urtekaria.

** ARGIA hilean birritan: 77 euro urtean.
Ordainketa urtean behin. 22 zenbaki + 11 Larrun.

*** ARGIA hilean behin: 41 euro urtean.
Ordainketa urtean behin. 11 zenbaki + 11 Larrun.

ESKAERAK

© 943 371 545 | harpidetza@argia.eus | www.argia.eus/harpidetza

 **argia**



Azaleko argazkia:
DANI BLANCO
Azala: ANTZA
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA



ARGIAKO edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egileza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Bego Zuza. Zuzendaria: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iriztiak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua, Garbine Ubeda. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza, Xabier Letona, Pello Zubiria. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. www.argia.eus: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Harpidetzak: Iraitx Agirre. Salmentak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoa: Aloan Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Berdaitz Goia, Olatz Korta, Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus. Web garapena: Asier Iturralde.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxe: 943 361048. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetza: harpidetza@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus. Interneten: www.argia.eus. Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza: Euskal Herria eta Espainia: asterokoa, 145 euro; hilean bi ale, 77 euro; hilean behinekora, 41 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea da.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

NON ZER

2015eko ekainaren 28a, 2.467. zenbakia

ASTEKO GAIA

ELIKADURA BURUJABETZA Langileen jantokia ingurua aberasteko motor. ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA / 4

PERTSONAIA

JOSE MARIA PITARKE: «Zientziaren garapena geldiezin da». SUSTRAI COLINA / 10

GAIK

ZIKLISTENTZAKO ARAUAK Automobil industriaren eta aseguru-etxeen iruzurra. JON TORNER ZABALA / 16

ESKOLA TXIKIEN FESTA Etekin ekonomikoei muga. ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA / 18

IRITZIAREN LEIHOA

DATOZEN LAU URTEETAKO GARAI BERRIA: BAI ALA BAI GARBIÑE BIURRUN MANCISIDOR / 20

PORROTAREN ALDE FERMIN ERBITI / 22

EREDUA? ANDONI MUJICA / 23

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENETA / 21

TXANDAN Mitologia, zertarako? JOANES ETXEBARRIA / 22

BERTSO BERRIAK Bertsio bat. FREDI PAIA RUIZ / 24

ERDIKO KAIERA

EUSKAL ANTZERKIA Loraldi kolektiboa. KEPA MATXAIN / 25

ELENA LOPEZ AGUIRRE: «Maitemindu naiz, nolabait, liburuko emakume guztiekin». IKER BARANDIARAN / 28

LITERATURA XABIER ETXANIZ ERLE / 30

MUSIKA JOXI UBEDA / 31

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO / 32

ZIENTZIA JOXERRA AIZPURUA SARASOLA / 33

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 34

• **BIZI BARATZEA, EMAN ETA HARTU** / 35

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 36

TERMOMETROA

ALFERRIKAKO AZPIEGITURAK La Engaña tunela: burdinbiderik gabeko trenbidea. JOXE ROJAS / 37

BERTSO ESKOLAK Araban euskara biziberritzen. MIEL A. ELUSTONDO / 40

FINANTZA BIDE ALTERNATIBOAK Euskal Herriko Koop57 sortu dute. URKO APAOLAZA AVILA / 43

GURE ESKU DAGO Orain erabakiak. URKO APAOLAZA AVILA / 44

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 47

EKONOMIAREN TALAIA JUAN MARI ARREGI / 47

NET HURBIL Siria, Myanmar... inoizko errefuxiatu krisi larriena oraintxe. PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

Langileen jantokia ingurua aberasteko motor

Hernaniko Orona kooperatiban kokatutako *Diametro 200* izeneko jatetxeak bertako produktuak, garaikoak eta ahal dela ekologikoak zerbitzatzen ditu: egunean 170 pertsonak bazkaltzen dute osasuntsu, horietatik 140 Oronako langileak dira. Sukalde berezia dute, elikagaiak hasi eta buka bertan eraldatzearen alde apustu egin duena. Inguruko lehen sektorea indartzen duen enpresako jantoki eredu hau aitzindaria izan daiteke. Urte gutxira enpresa gehiago gehituko zaizkien esperantzaz ari dira.

| ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA |

Argazkiak: Dani Blanco

INIGO MARQUET, Orona Fundazioko Gara-pen Zuzendariak azaldu digu nola iritsi ziren bertako eta garaiko elikagaiak zerbitzatzen dituen jantokia jartzera: “Orona Ideo esparrura etorri ginenean, obrak ia-ia bukatuta zeuden. Fundazioaren lehenbiziko ikasturtea hasita zegoen. Baina oraindik ez geneukan langileei jantoki zerbitzua emateko kantina jarria. Hausnarketa egin genuen: Orona Ideo proiektuarekin alor guztietan berrikuntzan harago joatea izan da asmoa. Kantina jartzerakoan ere harago joan behar genuen, koherente izan behar zuen, esaterako, berotzeko energia berriztagarri hutsez hornitzen den eraikinarekin”. Inguruaz gain, euren langileak ere kontuan izan zituela kontatu digu: “Nola bermatzen da egun jendea janari osasungarria emango diogula? Bertako produktuekin, garaiko produktuekin, eta ahal den neurrian produktu ekologikoekin. Ardura korporatibo ariketa bat da: zaindu dezagun gure jendea, egunero osasungarri jaten emanez”.

Diametro 200 jatetxearen kudeaketa: Gure Elikagai S.L.

Jatetxearen kudeaketa kontzesionario baten bidez eramaten da, Gure Elikagai Elkarte Mugatuaren bidez: bi bazkide dira, jabetza erdibana dutela. Bata bertako sukaldari eta zuzendaria, Federiko Patxa Goikoetxea. Eta Lur Lan elkarteak bestea. Langileak hartzerakoan ere inguruan bizi dena lehenesten dute.

Elikadura ardatz hartuta, proiektu sozioekonomiko bat garatzeko aukera dutela baloratzen du: “Egun ez dago inguruan ekoizpen nahikorik, horrelako elikadura eredu bat martxan jartzeko. Arazo hori aukera bihurtu nahi izan dugu; gure eskaerak aukera ematen digu inguruan lehenbiziko sektorea garatzeko: bertako ekoizpena indartuz, garaiko ekoizpenak indartuz... eta lehen sektorea indartzen dugunean ez gara bakarrik sektore ekonomiko bat indartzen ari, baita ere ari gara indartzen kultura, ingurumenaren zaintza...”.

Poltsiko bakoitzaren neurriko aukera

Goiko solairuan langileen kantina dago: eguneko menua eskaintzen da, *self-service* (norberak hartu beharrekoa) eran antolatuta. Kaleko jendeak ere jan dezake bertan, Oronako langileen artean. Aukera anitza dute: Entsalada, potajea eta purea egunero, eta horrez gain lehenengo plater bat, bigarren plater bi aukerara, eta postrea. Marquetek irriz aipatu du: “Tarteka sorpresa txikiak ere ematen dizkigute, nazioarteko keinuak (tako mexikarrak...)”.

Beheko solairuko kafetegian karta eskaintzen dute, plater landuagoak zerbitzatzen dituzte. Eta maila jasoagoko sukaldaritza eskaintzen duen beste jantoki bat ere badute, Oronara mundu osoetik datozen kanpoko bisitarientzat. Hiru eskaintza beraz, bakoitza dagokion prezioarekin.

Orona Ideon egiten diren ekitaldietarako koktelak eta luntxak ere prestatzen dituzte.



Haize kontra doan sukaldia

Fede Patxa Goikoetxea sukaldari eta jabeak harro azaldu dizkigu ostalaritzan paradisukoak diren lan baldintzak: “Gure sukaldean zortzi orduz egiten da lan, jarraian, astelehenetik ostiralera (asteburua eta jai egunak libre). Oporrak ditugu abuztuan, Gabon eta Aste Santuan. Hein handi batean Oronaren lan egutegiari lotuta gaudelako da hori. Baina kanpoko bezeroei menuak ematen dizkien kafetegia ireki genezakeen asteburuetan, abuztuan... eta ez dugu egin nahi. Gure sukaldariak gustura egotea nahi dugu. Horrek dakar gure taldeko langileak oso-oso inplikaturik egotea proiektuan. Askok kontatzen didate orain zenbat egoten diren umeekin...”.

Sukalde honetan lan baldintzak bezain deigarria da lan egiteko modua, dena bertan egitea helburu duena: “Gure elikagaien filosofia muturrera eramaten dugu. Ez da ezer sartzen industrialki prestatuta. Haragi xehatua behar badugu guk egiten dugu. Saltxitxak guk egi-

Goiko argazkian, langileak eguneko menua jaten.

Eskuinean, Iñigo Marquet Orona Fundazioko Garapen zuzendaria eta Fede Patxa, *Diametro 200* jatetxeko sukaldari eta jabeetakoia.



ORONA FUNDAZIOA

Duela urte eta erdi sortu zen Orona Fundazioa, Orona Ideo proiektuaren eragile nagusietakoa izateko. Fundazioan lau langile ari dira lanean. Bertako Garapen zuzendari Iñigo Marquetek azaldu duenez; “Orona Ideo, etorkizuna irabazteko proiektua da: Bere bidez, berrikuntzak are indar handiagoa hartzen du Oronaren barruan.

Fundazioak kanpora begira ingurua garatzeko misioa du, arlo sozioekonomikoan, kulturalen eta abar. Eta barrura begira, Oronaren giza kapitalaren garapena du misio, epe luzeko formazio proiektu sendoarekin. Elikadura proiektua ere barne misioari lotuta dago, lortzen duguna baita osasuntsu janez gure jendea zaintzea”.

Hornitzaileak

Jatetxearen jabeetakoa den Lur Lan elkarteak biltzen dira Euskal Herriko 80 ekoizle, jatetxearen irizpideekin lan egiten dutenak: bertako eta garaiko produktuak ekoiztea. Horri esker, jatetxeak lehen unetik bermatu ahal izan ditu ezaugarri horiek. Iñigo Marquet Orona Fundazioko Garapen Zuzendariaren hitzetan, "Lur Lan bere sarea handitu nahian ari da eta beraz, ekoizle berriak bilduko dira bertan edo dagoeneko daudenek aukera izango dute euren ekoizpena handitzeko. Hor jada gure jatetxearen eragina pixka bat nabaritzen hasia da".



ELTZEKARIAK

Fede Patxa sukaldari eta jabeak eman ditu azalpenak: "Eltzekari denak Gumendiri erosten dizkio, ekologikoak denak, Espainiakoak. Ohiko merkatuetan saltzen diren eltzekari gehienak dira Turkia, India, Txina, AEB, Mexikokoak... Nik denak ahal bezain gertukoak erosten ditut eta ekologikoak, kasu honetan Espainiakoak. Eta ahal dudan guztia Euskal Herrikoa. Esaterako, Arabak dilista asko ekoizten du".



HARAGIA

Bertakoa eta ekologikoa bermatzeko, bost abeltzainek ekoizle elkarte bat osatu dute, Oñatin. Patxak kontatu duenez, "egutegi bat adostu dugu, eta hilean abelburu bat erosten diet, oso-osorik. Banaka ezin zioten gure eskaerari erantzun, eta elkartuta bai. Batzuetan gibela erosi behar dugu, edo mingaina eta abar menua aldatzen joateko. Hori guztia Abere-ri (inguruko baserri-tarren haragia zerbitzatzen duen banatzaileari) erosten diogu".



ARRAINA

Egoitza Pasaian duen banatzaile bati hartzen diote arraina, astean bitan: "Garaiko arraina erosten dugu, beti. Batzuetan migratzai-leak, eta bertako espezie batzuk (oilarrak, panekak...). Ahal dela dena baxurakoa erosten dugu, eta lonjan deskargatutakoa. Banatzaileak adi egoten da eta erosi aurretik deitu egiten digu: 'Hau sartu da, nahi duzue?'".



EUSKAL HERRIA
esnea

www.euskalherriaesnea.com



jan baserritik 

20491 Leaburu · ☎ 943 670 724
www.mahalanaturala.com · info@mahalanaturala.com



BARAZKIAK

Lur Lanetik eta Hernaniko Karabeleko Fundaziotik eskuratzen dituzte. Marqueten hitzetan, “guretzat Karabeleko proiektu biribila da, baratzean lan egiten baitute gaixotasun mentalak dituzten Agifeseako kideek eta birgizarteratzeko prozesuan dauden Iresi elkarteko presoek. Baratzea terapia eraginkorra da horientzat”. Lezoko agroaldeatik eta Nafarroatik ere ekartzen dituzte barazkiak. “Etorkizunean, pixkanaka helburua da Orona Ideoren hornitzaile sarea osatzea eta inguruan eragitea”



EDARIAK

Ura %100 iturrikoa da. Patxa: “Edarietan ere, denean dugu ekologikoa aukeran: bertako garagardoa eta bertako garagardo ekologikoa. Bertako ardoa eta bertako ardo ekologikoa. Bertako zukua eta bertako zuku ekologikoa”.



KANELA

Etiketarik ez daraman kanela hau ekologikoa da eta bidezko merkataritzakoa. Azukrea berdin, eta kafeak... Patxak bota digu: “Gure filosofia da, ez dugu esateagatik egiten. Infusioak Joseneakoak dira, ekologikoak eta emakume kooperatiba batekoak”.

[f]arina

Urbina kalea, 5 · (Molinuevo Parkea) · Vitoria-Gasteiz ARABA
☎ 945 06 95 81 · info@farinarestaurante.com

**Etxekoa,
ekologikoa...**



ELIKADURA BURUJABETZA

ten ditugu. Tomate saltsa guk egiten dugu. Bizkotxoak guk egiten ditugu. Transformazio osoa. Pentsa, behiak osorik ekartzen ditugu eta guk kentzen diegu hezurdura!”. Arrunta behar lukeena salbuespen dela nabarmendu du: “Sukaldeetan gero eta gutxiago egiten da sukaldean. Egun jar dezakezu sukaldia eta elikagaien %100 prestatuta jaso. Ez duzu sukaldaririk behar! berregiten dakitenak eta zerbitzatzen dutenak behar dituzu. Eta guk sukaldean egin nahi dugu, elikagaiak hasieratik bukaerara landu nahi ditugu. Hori erabat kontra doa egungo sukaldeetan egiten denarekin, kontziente naiz. Esango nuke barazkiak ere garbituta datozela jatetxe askotan”.

Garaian garaikoa, eta hasi eta buka bertan egina. Horren froga nagusia erakutsi digu: “Jatetxeetako sukaldean erregina izozkailu erraldoi bat izaten da. Guk ez dugu izozkailurik. Bi arkoi txiki ditugu, sobratutako gauzak eta abar gordetzeko. Dena gu egiten saiatzen gara, baita ogi batzuk ere! Pasta freskoa ere egiten dugu. Amaituko dugu, pixkanaka, den-dena egiten. Ez dadila transformatutako ezer sartu (ez ogirik, ez pasta lehorrik...), hori da azken helburua. Lan gehiago da, eskulan gehiago da, soldatetan lonordu gehiago ordaindu behar dira, baina gure helburua ez da ahalik eta diru gehien irabaztea”.

“Gaur eskaini ditugun zerbak, Hernaniko Karabelekoren baratzeetan goizeko 8etan atera dituzte lurretik, 9etan iritsi dira gure sukaldara, prestatu ditugu eta eguerdian horietatik atera ditugu. Dugun lantaldearentzako, 170 bazkaltzar egunean ez dira gehiegi. Horrek ahalbidetzen digu ia erabat egunean eguneko prestatzea. Hori, kopuru hauetako menua eskaintzen duen jantoki batean, luxua da”. Dinamika ederra dutela azaldu digu: “Ostiralean birziklatzen dugu asteen zehar jarri duguna. Egunerok aldatzen dugu menua, eta sobratzen dena ostiralean zerbitzatzen dugu. Horrela langileek aukera dute aurrekoan inbidiaz utzi zutena dastatzeko”.

Errentagarritasunaz

Horrelako jantoki zerbitzua eskaintzeak merezi duela dio, ziurtasunez, Marquetek: “Ikuspegi ekonomiko hutsetik, ziur jar dezakeela enpresak ekonomikoki errentagarriagoa zaion zerbait. Baina ez diogu horri bakarrik begiratzen: Gure jendea zaintzen ari gara, eta eragin bat sortzen ari gara inguruan”. Langileen bazkarien kostuaren zati bat kooperatibak hartzen du beregain, eta beste zati bat langileak. Marqueten hitzetan, “hemengo langileak prest daude pitin bat gehiago ordaintzeko, horrela bazkaltzearen truke”.

Aitortu du zenbakiak osatzeko lagungarri zaizkiela kanpoko bezeroak: “Horrela estal-



%75

Helburua %100 lortzea izanik, egun zerbitzatzen duten guztiaren %63 inguru dira bertako produktuak, eta beste %12 ekologikoa.

tzen dugu jatetxeak izan dezakeen gailortua. Orona Ideoren esparruan egunerok egiten dira bilerak, kongresuak, kanpoko jendea dator... Jendea irxitzen dauden enpresak, bertako langileentzat bakarrik zerbitzua emango luketenak, kostu handiagoa hartu beharko lukete beregain. Edozein kasutan, norberak baloratzen du gauza bakoitzaren garrantzia. Applek eta Googlek sekulako gimnasioak jartzen dituzte langileentzako. Guk ez dugu inbertsio hori egingo, baina bai inbertitzen dugu langileek egunerok osasuntsu jan dezaten”.

Aurrera begirako garapena

Marquetek aurreratu duenez, “gure bokazioa da etorkizunean Oronako beste lan zentroetan eredu hau jartzea. Horretarako lan egiten ari gara”. Beste enpresa batzuk ere (horietako batzuek kooperatibak, Mondragon taldekoak eta ez direnak) interesa agertu dute proiektu honekiko eta aztertzen ari dira euren enpresan martxan jartzeak ekarriko lukeena. Marquet pozik da: “Hemengo sistema benetan bideragarria dela ikusi dute. Beste enpresei esango nieke serio aztertzeko: posible da eta onurak oso onak dira. Gure langileak pozik daude, baloratzen dute proiektua eta badakite beren eguneroko otorduarekin inguruan aberastasuna sortzen ari direla. Etorkizuna da”.

Patxa sukaldariak beste erronka bat du buruan: “Lortu behar dugu inguruko langileak eta kaleko jendea bazkaltzera etortzea, kafetegiko jatun kopurua haztea. Baina pixkanaka. Ez dago presarik, ongi egitea da garrantzitsua”. ■



Mahaingurua

GAIAK

Euskal Herrian bakea lortzearen aldeko giza konferentzia"-ren ondorioak.
Foro soziala eta parte hartze soziala

EGUNA

Uztailak 4, 11:00etan

TOKIA

FICOBA (Irun)

Laguntzailea



Antolatzailea



JOSE MARIA PITARKE

«Zientziaren garapena geldiezin da»

Elkarriketa = (Esan+ Entzun)²

| SUSTRAI COLINA |

Argazkiak: Dani Blanco

Zientzialariaren formula?

Zientzialariak lan nekaezina egiten du, korapiloak askatu eta askatu, tunelaren bukaera argia ikusi arte. Ikertzen ari dena ulertzea du helburu, asmatu, jakintza berria sortu, eta behin tunelaren amaierara iristean, kateatzen zaizkion korapilo berriak desegin arte ez du etsiko. Ez da ikaratuko ustekabeen aurrean. Alderantziz, espero ez zuena aurkitzen badu, askoz hobeto! Horretarako jakin-mina da bere motorra. Jakin-mina eta derrigorrezko puntu obsesibo bat. Niels Borh-i, mekanika kuantikoaren aitari, bere ekarpen itzelaz galdetu ziotenean, “egun osoan, hori baizik ez daukat buruan. Nola ez dut asmatuko?” eman zuen arrapostu. Izan ere, gure lanak ikerketaren eboluzioan eragina izatea nahi dugu, beste erronka batzuei aurre egin ahal izateko erabilgarria izatea. Errekonozimendu hori nahi dugulako gara lehiakorak. Helmuta aurrean iristea gustatzen zaigu, gure artikuluak aldizkari ospetsuetan argitaratuta ikustea. Horixe da besteengan eragiteko baldintza.

Helmugara bidean, kontziente zarete esku artean duzuenak gure bizimoduan ukan dezakeen eraginaz?

Jakin-minak gidatzen gaitu, ez hainbeste esku artean dugunaren aplikazioak jendartearen suposatu dezakeenak. Batzuetan susmatzen dugu, besteetan ez. XX. mende hasieran mekanika kuantikoa garatu zutenek ez zekiten egungo elektronikaren oinarria jartzen ari zirenik, eta begira orain zenbat trepetara daukagun inguruan. Mekanika kuantikorik gabe ez legoke telefono mugikorrik, baina mekanika kuantikoa asmatu zutenek ez zuten sakelakoa buruan. Epe luzera begira lan egiteak eran-


tzunekin baino, galderekin aritzea esan nahi du. Horregatik behar ditugu galdera berriak erantzunak aurkitu orduko. Horregatik dira aplikazioak oinarritzko ikerketak jendartera eramateko bidea. Iraganeko ikerketaren aplikazioak ere bilatzen ditugu. Aplikazioak eta dibulgazioa. Hala, zure galderari buelta eman, kontziente da jendartearen esku artean daudenak bizimodua aldatu dezakeela?

...

Egia da jendarteak paso egiten duela zientziaz. Egia eta normala. Hala ere, jendarteak positiboki hartzen du zientzia, badaki garrantzitsua dela, zientziak teknologia dakarrela. Esaterako, denek dute argi gaixotasunen aurka ikertu behar dela. Gurea bezalako alorretan nekezagoa da premiak ikusaraztea, hizkuntza bera konplikatu da, eta ulertzen ez denari ez zaio kasurik egiten. Hori hala, ezinbestekoa da dibulgazioa. Zientziak eragin itzela du gure egunerokoan, teknologiaz

NORTASUN AGIRIA

Jose Maria Pitarke. 1960ko otsailaren 14an Bilbon sortua. EHU Fisikan doktoratua, EHUko fisikako materia kondentsatuaren katedraduna eta nanoGUNE-ko zuzendari nagusia da. Post-doktoretza Oak Ridgeko laborategi nazionalen egin zuenetik, egonaldi mordoxka egin ditu Amerikako Estatu Batuetako unibertsitate zein Londresko unibertsitateko Imperial Collegean, eta aldizkari askotan argitaratu dira bere artikuluak. 2005etik Cambridgeko unibertsitateko Churchill kolegioko “Al-Member” da, eta 2009an Manuel Laborde Werlinden sariko epaimahaiak aipamen berezia egin zion grafenoarekin izandako iniziatiba enpresariala dela-eta.



inguratuta bizi gara, eta jendarte bezala hartu beharreko erabaki askoren atzean zientzia eta teknologia daude. Nola hartuko ditugu erabaki zuzenak kultura zientifikorik gabe? Behin eta berriz errepikatzen zaigu Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleengan bokazioak piztu behar ditugula, ikasleak geureganatu, baina hori baino garrantzitsuagoa da denei gutxiengo kultura zientifikoa txertatzea. Horixe egiten dugu huts. Ez daukagu kultura zientifikorik.

Horregatik zaudete hedabideetan agertzeko aurkikuntza miragarrietara kondenatuta?

Hedabideetan zer agertzen da? Kirola, politika... Jendeari zer gustatzen zaio? Ulertzen duena. Kirola ulertzeko ez da askorik behar, denoi iruditzen zaigu politika ulertzen dugula, baina zer gertatzen da matematikarekin? Ulertzen dutenei gustatzen zaie eta ulertzen ez dutenek gorroto dute. Horregatik da zaila guretzat hedabideetan sudurra sartzea. Hedabideek inpaktua nahi dute, eta ulertzen ez denak nekez inpaktatzen du. Jendeak kasu egitea nahi badugu ulergarriak izatea dagokigu, eta horretarako zientzialariaren eta kazetariaren arteko elkarlana behar da. Ikerlariaren lana hitz xumez itzultzeko ardura zehazten ez dugun arte, haize-kontra ariko gara.

Zientziak teknologia dakar eta soluzioek arazo berriak. Olatuan dena da haize-alde?

Alderdi praktikotik erreparatuta, orain ehun urteko bizimodua ez zen humanoa. Zoriontasuna, ongizatea, edo bizi ahal izateko aukera bera bakar batzuen esku zeuden. Gehiengehienentzat oso gogorra zen bizimodua: erreketan baino ez zegoen urik, gaixotasunak izurrite bihurtzen ziren, bizi-esperantza laburragoa zen... Zientzia eta teknologiari esker leundu dira arantzak, borobildu ertzak, eta orain ehun urte baino bizimodu samurragoa dugu. Horrek ez du esan nahi, ordea, arazo guztietatik salbu gaudenik. Ekarpen eta tresna berriek onura nabarmenak dakartzate, baina oker erabiltzeko arrisku galanta ere bai. Esaterako, garaiotan, teknologiaren erruz naturarekiko oreka kolokan egon daiteke. Horregatik azpimarratzen dut kultura zientifikoaren beharra. Horrek babestuko gaitu arriskuetatik. Zientzia eta teknologia ezagutzeak zientziaren abantailak hobeto probesten lagunduko digu, arriskueta ito gabe.

Erakunde eta agintariak jabetzen dira horretaz?

Munduko herrialde aurreratuenean beti izan dituzte zientzialari bikainak. Erresuma Batuan, Alemanian, AEBetan, puntako ikerlariak estimatuak dira oso. Ez da kasualitatea, zientziaren aldeko apustua egin duten herrial-



deak dira aurreratuenak, eta aurreratuenak izanagatik, zientziaren aldeko apustua egiten jarraitzen dute. Zientzia guztiona da, baina bakoitzak erabakitzen du trenaren lehenengo, erdiko edo azken bagoian joan. Orain berrogei urte, hemen ez zegoen zientzietako unibertsitaterik. Ingeniaritza eskola zegoen, ikasketa ekonomikoak, baina zientzietan basamortuan genbiltzan. Eskerrak, azken hogeitau urteetan Eusko Jaurlaritzak zientziaren alde egin duen. Egun, zientzialari onak dauzkagu, garrantzia eta gorputza hartzen ari diren ikerketa zentroak. Tradizioa da falta zaiguna. Esaterako, Erresuma Batuko uniber-

tsitate eta ikerketa zentro askok jende xeheak emandako mezenasgoarekin osatzen dute aurrekontuaren zati bat. Gurean, pentsaezina da hori. Alabaina, erakundeek zientziaren alde egiten segiz gero, tradizioa errotzen joango da, eta baliteke jendeak mentalitatea aldatu eta zientziaren ezinbestekotasuna barneratzea. Urteak beharko dira, baina seinale ona litzateke horretara heltzea.

Finantziazio pribatua heltzeko ere urteak beharko dira?

Ez gaude beste herrialde batzuen parean. Nik erraz esan dezaket enpresek dirua jarri behar

dutela, baina enpresariak bestela ikusten dute auzia. Zintzoki mintzatuz, AEBetako enpresek ikerketarako euren dirua jartzen dute, hemengoek Jaurilaritzatik lortzen dutena batez ere. Oso zaila da hemengo enpresa batek bere txanponak ikerketan inbertitzea. AEBetan, sinetsita daude inbertsio hori berreskuratuko dutela, euren enpresarako ona izango dela. Horretan ere mentalitate aldaketa behar dugu. Izan ere, gurea bezalako ikerketa zentroak ez dira soilik enpresen beharrei epe motzera erantzuten dieten eragileak, epe ertain-luzera garapen ekonomikoaren agente garrantzitsuak izan daitezke. Hori xe da AEBetan gertatzen ari dena. Horretarako, ordea, enpresek gure aldeko apustua egin behar dute. Eta guk enpresen aldeko apustua egin behar dugu.

Ikerketa zentroez ari gareno, zein bisio duzu nanoGUNE-z?

Punta-puntako ikerketa zentroa izan nahi dugu, nanozientzia mundu osoan ezagunak eta erreferenteak izan. Egiten dugunagatik kokatu gaitzela mapan, gure ikerketen emaitzek beste batzuen lanean eragin dezatela. Oro har, oinarritzko ikerketa zentro baten-tzat helburu horiek aski eta sobera izan arren, nanoGUNEk eragina izan behar du garapen

ekonomikoan, hemengo enpresengandik errekonozimendua eta onarpena jaso. Bertako enpresek euskal jendartearentzat errentagarria den zentrotzat ikus gaitzate, gure ahalmenei esker ekonomia mugitzeko gai garela ohartu daitezela. Horretarako, garbi izan behar dugu ezin garela alor guztietan lehiakorrak izan eta gure lan eta aukerak egoki zedarritzeak seinalatuko dizkigula nor izateko zirrikituak. Nanozientzia diziplinen arteko elkarlana eskatzen duen eremu zabal eta sakabanatua izanik, txikiaren erronka handia da hori.

Grafenoa da zuen zirrikituetako bat.

Karbono atomoaz osaturiko geruza bakarra da grafenoa. Atomo bakarreko lodiera du, irudikatu dezakegun objekturik meheena da, paper-orria baino milioi bat aldiz meheagoa. Grafeno xaflak elkarren gainean metatuz, arkatzetan ezagutzen dugun grafitoa lortzen da. Oraintsu arte, ordea, ez genuen uste xafla bakar bat modu egonkorrean isolatu zitekeenik, 2004an, Manchesterreko unibertsitateko zientzialariek posible zela frogatu zuten arte. Orduan, denok hasi ginen grafenoa ikertzen, material bakarrean propietate izugarriak biltzen dituelako. Malgutasun itzela du, ez dago bera baino material sendo-

KORTXEAK & KRISPETAK

MUSIKA LORATEGIAN + ZINEMA HARRESIAN

UZTAILAK 3

MUSIKA
JAZZ 4 JOY 20:00
THE CHERRY BOPPERS • 21:30
*JAZZ HARREAN 2015 BARRUKO KONTZERTUA

ZINEMA
SWING KIDS 00:00

UZTAILAK 10

MUSIKA
JOHN BERKHOUT 21:30

ZINEMA
SEARCHING FOR SUGAR MAN 00:00

UZTAILAK 17

MUSIKA
UNCLOSE 21:30

ZINEMA
CONTROL 00:00

SARRERA LIBREA
FILMAK JATORRIZKO BERTSIOAN ETA EUSKARAZKO AZPITITULUEKIN PROIEKTATUKO DIRA
MUSIKA: PALEGINA LORATEGIAN / ZINEMA AIRE LIBREAN: HARRESIAN ELUR ZULOAREN ONDOAN (FRAY ZACARIAS MARTINEZ KALEA)

WWW.OHANEDEREUSKARARENETXEA.EUS
FRAY ZACARIAS MARTINEZ 2, VITORIA-GASTEIZ

Laguntzaileak
Diario **HOR DAGO!** **radio vitoria** **OHANEDER EUSKARAREN ETXEA** **Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz**

OFF THE RECORD

Handitan

Zuzendariaren bulego ongi isolatuan euliak eta hitzak soilik entzuten dira. NanoGUNE-ko kafetegian, hizkuntza ezberdin asko. Hiru laurdenak eskapatzen zaizkidan arren, gero eta atseginagoak zaizkit frantsesa eta gaztelera beharrezkoak ez diren eremuak. Horregatik bakarrik, zientzialaria izan nahi nuke handitan.



agorik, eroale termiko onena da, grafenoaren elektro-higikortasuna egun erabiltzen dugun silizioarena baino ehun aldiz handiagoa da, garden-gardena.... Marka guztiak hausten ditu. 2009an asmatu zen grafenoa ekoizteko metodo industrializagarria, eta handik gutxira hartu genuen Graphenea sortzeko erabakia, grafenoa ekoitzi eta saltzen duen enpresa. Ez genuen horrelakorik aurrez pentsatu, baina inbertsore bat asmo horrekin hurbildu zitzaigunean, ezagutza, alor horretako ikertzaile onentsuenak eta puntako azpiegitura genituela jabetu eta parada ikusi genuen. Graphenea Europako grafeno ekoizle onena da egun eta mundu mailan punta-puntan dago. Zergatik eman ahal izan genuen pausoa? Grafenoaren ikerketan ongi kokatuta geundelako, lehiakorrak ginelako, eta batez ere, zirrikitua ikusi genuelako.

Zertarako balio du grafenoak?

Oso material baliagarria da, sendoa eta pisu gutxikoa. Pentsa, lau-pabost grafeno gramorekin futbol zelai oso bat estaliko genuke. Elektronikan, oso epe luzera, gerta liteke txip guztiak grafenozkoak izatea. Epe laburrean, ukipen pantailetan topatuko dugu. Material eroale eta garden oso gutxi daude, eta egun erabiltzen duguna urria da. Hori berandu baino lehen ikusiko dugu. Oraingoz, ordea, grafenoa teniseko erraketetan eta tinta eroale batzuetan baizik ez dago merkatuan. Gurea bezalako zentroek zein industriak ikerketarako erabiltzen dute. Nokia, IBM, Philips eta abar grafenoari bueltaka dabilta eta Graphenearen bezeroak dira. Horrexegatik diot, goiz ala berant, grafenoa merkatuan edonon ikusiko dugula. Noiz ezin jakin, ordea.

Aurrerapenak aurrerapen, zientziari mugak jarri behar zaizkio? Zientziak etika behar du?

Zientziaren garapena geldiezin da. Mugak jarri arren, zientzialariak aurrera egingo du parean agertzen zaizkion korapilo guztiak askatu nahian. Hala, alferrikakoa litzateke

zientziari mugak jartzea. Besterik da zientziak dakarrenari mugak jartzea. Hortxe sartzen dira etika eta eztabaida. Energia nuklearra izan daiteke adibide. Oinarritzko ikerketan ez dago ideologiarik, ideologiak ez du jakintzan aurrera egin nahia baldintzatzen, baina jakintzaren erabilera derrigorrez kudeatu eta arautu behar da. Horrexegatik diot, jendartearentzat lan egiten duen neurrian, zientzia geldiezin dela, eta mugak eta etika ondoren datozela.

Zer da, bihar, etzi, ondoren... datorrena?

Iraganean etorkizunari begira jarri eta ahoa ireki duten ia guztiek sartu dute hanka. Pentsa, Michelson fisikari ospetsuak dena egin da zegoela esan zuen gaur egun ezinbestekoak zaizkigun erlatibitatearen teoria eta mekanika kuantikoa asmatu gabe zeuden. Hori hala, zeintzuk diren etorkizuneko erronkak? Mende erdi barru zerk aldatuko duen gure bizimodua? Nire ustez, medikuntzak. Medikuntza oso gutxi dakigu oraindik. Nanoteknologiak arlo guztietan izango du eragina, irudikatzen ez ditugun gailuak asmatuko dira, eta dena konektatuta egongo den sare handi baten parte izango gara. Ordenagailuak papera bezalakoak izango dira —erabili, bota eta birziklagarriak—, dena izango da eramangarria, gailuak arropetan integratuko dizkigute, edo nork daki, gure barruan agian. Horrek medikuntza pertsonalizatua ahalbideatuko du, uneoro bakoitzak zehazki zer behar duen jakin ahal izatea. Albo-efekturik gabeko medikuntzara hurbilduko gara, botiken garraio kontrolatua, eta garapen jasangarria izango dugu ardatz. Gutxiagorekin gehiago egiteko gai bagara, albo-kalterik eta hondakinik gabe, asko irabaziko dugu. ■

PAGOA REGGAE GAUAK OIARTZUN

NEW YORK SKA-JAZZ ENSEMBLE

SUMMER EUROPEAN TOUR 2015



+ SALDA DAGO THUNDER CLAP SOUNDSYSTEM



BRIXTON
RECORDS



EL DIARIO VASCO

SARRERAK:

Elorso Kiroidegia

www.sarrerakutxabank.es

Aurretik 10€ - Egunean 15€

ZIKLISTENTZAKO ARAUAK

Automobil industriaren eta aseguru-etxeen iruzurra

“Automobil industriaren, aseguru-etxeen eta Gobernu funtzionarioen helburua da hiri barnean bizikletan dabiltzanek kaskoa derrigor janztea eta zirkulazio arauak zorroztea”, dio Eben Weiss blogari estatubatuarrek. “Ziklistek jasan ditzaketen balizko kalteen erantzukizuna saihestu nahi dute, baita azpiegiturak egokitu behar ez izatea ere”.

| JON TORNER ZABALA |



WIKIPEDIA

Bizikletaren erabilera sustatu eta txirrindularien segurtasuna bermatu aldera, askok uste du azpiegiturak hobetu eta auto gidariak kontzientziatu beharko liratekeela, arauak zorroztu beharrean. Irudian, eredu bilakatu den Kopenhage.

“AHULENAK kriminalizatzea besterik ez dute nahi, oinezko eta txirrindularientzako azpiegitura hobeak eraiki behar ez izatea, *guztionezko eskubide eta betebeharrak* berdinak tranparen argudioarekin”, salatu du Weissek, *Washington Post* egunkariko *Bike Snob New York* blogean. AEBetako legedia du jo-puntuan, baina testuan esandakoek berdin balio dute beste errealitate batzuk azaltzeko. Dioenez, txirrindulariei kaskoa, arropa islatzailea eta dir-dir egiten duten orotariko tramankuluak eramatera derrigortzea, autoen hegemoniari eusteko distrakzio hutsa da. “Ez itzazue ziklistak ikusgarriago egin, autoek harrapa ez ditzatela lor ezazue”, eskatu die agintariei.

Apurka-apurka gauzak aldatzen ari direla onartu arren, oraindik biktima seinalatzen dela dio blogariak, izan oinezkoa zein txirrindularia. “Autoak hirien jabe egin zirenean zirkulazio arau zorrotzagoak eskatu zituzten batzuek. Automobil industriak propaganda-gerra abiatu zuen, segurtasun kanpainaren moztzearekin. Arrakasta handienetakoa *zurburtziaz gabeko oinezko eta ziklistaren* figurak lortu du, zeinak zirkulazio eskubidea lapurtu zigun”:

Mugikortasun auizietan ere, berdintasunaren ideia amerikarra nagusitu dela irakurri dugu: “Errealitatean, desberdintasunak justifikatzen dituen kontzeptu maltzurra da, bote-

Nork subentzionatzen ditu hirigintza arduradunak?

GALDERA HORI luzatu dio hainbat eragileri Fredrik Gertten suediar-
rak, *Bikes vs cars* (Bizikletak vs
autoak) dokumental estreinatu
berrian. Brasilgo ekintzaileek
boteprontoan erantzun dute:
petrolio konpainiek eta automobil
industriak. Eta European ere,
antzer. Esaterako, Alemanian,
Angela Merkel kantzilerrak autoen
emisioen aurkako legeak gogor-
tzeari betoa jarri zion unean,
BMW konpainiak CDU alderdia-
ren kanpaina 690.000 eurekin

lagundu zuela jakinarazi zuten
hedabideek.

Gaur egungo egoera zertan den
azaltze aldera, denboran atzera egin
du dokumentalak, hiri batzuen
transformazioa nabarmentzekoa
baita oso. Los Angeles (AEB) dugu
erakusgarri. XX. mendean mundu-
ko garraio publiko sare onenetakoa
zuen; gaur egun, ordea, bere lurzo-
ruaren %75 errepideek hartzen
dute. Zergatik gertatu da hori?
General Motors konpainiak kon-
trolatzen duen enpresa batek hiri-

autobusa erosi zuen, eta zerbitzua
murriztu egin du apurka-apurka,
errepide gero eta gehiago eraikitzen
zuen bitartean. Halaber, tranbia zer-
bitzua ere desmantelatu dute.
Azken urteotan Los Angeleseko
biztanle kopurua %20 hazi da, eta
autoena %230. Toronton (Kanada),
automobil industriak hauspoturik,
alkateak murriztu egin ditu kotxeen-
tzako matrikulazio zergak... baita
bidegorri kopurua ere. Ondorioa:
autoen eta bizikleten arteko istri-
puek gora egin dute.

retsua eta ahulenak maila berean jartzen
dituelako”. Dioenez, ez da gauza bera 800
kiloko autoan bidaiatzea edo, zure 80 kiloe-
kin, etengabe azeleratzen ari diren autoen
artean bizikletaz ibiltzea. “Ez naiz ari esaten
ez litzakeela kotxerik egon behar, nik badut
bat”, argitu du Weissek. “Kontua da autoak
Wall Streeteko jende zuria bezalakoak direla,
ez dute behar inork babes are handiagoa
eskaintzea”.

Kaskoa janztera behartzeak ziklistak uxatzen ditu

Blogariaren hitzetan, herritarrek eguneroko
bizitzan (lanera joateko, erosketak egiteko...) bizikletarik ez erabiltzea lortzen dute kaskoa-
ren inguruko araudiek, deserosoa gerta daite-
keelako batetik, eta hura ez janztea dirudiena
baino arriskutsuagoa dela sinetsarazten digu-
telako bestetik.

Ziklista profesionalen lasterketak espainiar
telebistaz jarraitu ohi ditugunok, maiz entzun
dizkiogu gisa horretako adierazpenak Pedro
Delgado txirrindulari ohia. Bere ustez, nor-
berak erabaki beharko luke hirietan kaskoa
jantzi ala ez, kontuan hartuta “auto batek
harrapatuz gero ezer gutxirako balio duela”.
DGT trafiko zuzendaritzaren datuetan oina-
rrituta Sevillako Unibertsitateko SIBUS agen-
tziaren arabera, buruko lesio larria jasan duen
ziklista kopuruari dagokionez –gero eta
gutxiago dira, hiriak seguruagoak direlako–,
apenas dagoen alderik kaskoa daramaten eta
ez daramaten artean. Hura jantzi behar iza-
teak bizikletaz egiten diren joan-etorriak
murrizten dituela dio Delgadok, Australia eta
Zeelanda Berriko datuek erakusten duten
moduan: kaskoaren erabilera arautzen duen
legea indarrean jarri zenetik, bizikletaz dabilen
herritar kopurua %20-40 artean murriztu da.

Zentzu horretan, bizikletaren aldeko Con-
Bici koordinakundeak ohartarazi duenez, hel-
duek kaskoa jantzi behar izatea Europako
herrialde bakar batean ere ez da derrigorrez-
koa. Danimarkan eta Herbereetan, bi herrial-
de aipatzearren, jende piloak erabiltzen du
bizikleta, araudiak haiek babesteaz gain, auto
gidariak kontzientziazatuz direlako.

Delgadoren hitzetan, hiri barnean kaskoa-
ren erabilera derrigortzeak erakusten du ase-
guru-etxeen joko-arauen menpe gaudela:
“Autoak harrapatutako kaskodun ziklista
batek prezio bat du, eta kaskorik ez darama-
nak beste bat. Bigarren kasuan, autoaren
segurua kalte-ordaina ematetik salbu gera
daiteke; tamalgaria da”.

Hego Euskal Herrian, 16 urtetik azpikoentzat derrigorrezkoa

Hego Euskal Herriaren kasuan bi multzo
bereizi behar dira: 16 urtez azpikoak eta hor-
tik gorakoak. Hiri barneko zirkulazioaz ari
gara betiere; herriz kanpoko errepide guztie-
tan da premia kaskoa eramatea.

Espainiako Estatuko Zirkulazio Legeak 16
urtez azpikoek kaskoa derrigorrez jantzi
behar dutela arautu zuen iazko martxoan.
PPk herri barruko joan-etorrietan ere kaskoa
erabiltzera derrigortu nahi zituen pertsona
guztiak, adina dena delakoa izanda ere, baina
oposizioa taldeek neurria arbuia eta
popularrak atzera egitea erabaki zuten azke-
nean. Araua bete ezean, 200 euroko isunari
aurre egin beharko diote gazteek”. Iparral-
dean, aitzitik, inon ere ez da behartzen kas-
koa janztera.

Ez da zalantzarik auziaz hausnartu eta luze
eztabaidatu beharko litzatekeela, hirigintza
politika eraginkorra sustatu nahi badugu
bederen. ■

Etekin ekonomikoei muga

Festa handiagoa egin, jende gehiago bildu, diru etekin handiagoa atera. “Orain arte gurpilak eramane gaitu” aitortu dute Gipuzkoako Eskola Txikietako Gurasoen Koordinadorako lehendakari Nagore Iñurrategik, eta Eskola Txikietako irakasleen koordinatzailea den Mikel Goñik. Gurpil zoroa haustea erabaki dute: etekinik gabeko festa izango da aurrerantzean. Nola ase, orduan, Eskola Txikiek dituzten premiak?

| ESTITXU EIZAGIRRE KEREXETA |

EKAINAREN 14AN GABIRIAN ospatu zen festa hartuko da oinarri aurrerantzean. Gogoeta fase baten emaitza izan da berau. Nagore Iñurrategik kontatu digunez, “duela hiru urte zailtasunak ikusi genituen festari aurre egiteko, hartzen zituen dimentsioengatik alde egiten zigun. Herriek ez zuten ilusiorik festa antolatzeke, zama gisa ikusten zuten eta horrek jada alarma denak piztu zituen. Duela bi urte, batzarrean planteatzera iritsi ginen festa egiten jarraituko genuen ala ez! Jarraitzearen alde agertu zen batzarra, baina aldaketari eutsiz”. Mikel Goñik azaldu du irakasleek ere aldaketaren beharra sentitzen zutela. Komunikabideek, ikastolen festen logikari jarraituz, irabazitako dirua zertan inbertituko zuten galdetzen zieten, “eta hori ez zen bultzatzen nahi genuen festa eredu”. Laz hasi ziren irakasle eta gurasoen artean adostutako puntuak dokumentu batera ekartzeko. Pixkanaka arautegi bat zehazten ari dira, festa guztietarako oinarri izango dena. Hurrengo ikasturte hasieran bozkatuko dute berau.

Etorkizuneko festaren oinarriak

Goñik aurreratu bezala, izaera publikoa izango da ezaugarri nagusietakoa: “Guk ez dugu beste irtenbiderik, dugun neurrirako publikoak izan beharra daukagu, eta festa horren baitakoa izan behar du. Diru etekinak ateratzen direla? Bada datorren urteko festarako erabili daitezke, baina helburuak ez du hori izan behar”. Iñurrategik sare guztiaren izaera nabarmendu beharra sumatu du: “Antolatzen duen herriak bere herriko festa balitz bezala bizi izan du. Noski herriak berak garrantzi handia hartzen duela eta protagonista dela, baina Eskola Txikien Festa da, eskola txiki guztiak ordezkatzeko dituenak”.

Nola eramaten da filosofia festara?

Iñurrategik azaldu du teoria eta praktikaren arteko arrakala: “Ideia-tegian denok egon gaituzke ados: elkartzea dela nahi duguna, hemen

gaudela aldarrikatzeko... baina festa antolatze-rakoan ateratzen dira beldur ekonomikoak, eta gainerakoak”. Gabiriako festa izan duen aurrekontua oinarri hartzeko egokia dela diote, Gabiriakoa bailitzateke “festa garestiena”: Gabiriak ez dauka aterperik, iristeko garraioa jarri behar da... Iñurrategiren hitzetan, “gure asmoa da azpiegituren oinarritzko diru kopurua markatzea, baina urtero aztertuko dira lekuan lekuko beharrak. Ekitaldian, aurreko goizeko ekintzak jolasak izan dira eta arratsaldean ikuskizun bat (zirkua)”.

Kamiseten salmenta ere mugatzearen alde egin dutela azaldu du Goñik: “Kamisetena azken urteetan tentsio karga bihurtu zen. Helburua ez bada diru etekina, zertarako hartu hainbeste lana, hara eta hona joanaz saltzera? Kamisetak diru sarrera modu bat izan daitezke, baina beste bide batzuk ere badaude”. Iñurrategi kamisetek betetzen duten funtzioaz mintzo da: “Ikusarazteko balio dute, publizitate mugikorra dira. Bada identitate kontu bat, oporretara joan eta ‘aiba! Eskola Txikitakoa!’ pozik topo egiten dugu. Salmentak badu zentzua Gipuzkoan, bailara batzuetan; ez gara geratuko gure herrian bakarrik! Baina hortik aurrera mugatu egin dugu”. Etekinak hizpide, Iñurrategi faktore garrantzitsu bat aipatu du: “Aurrekontuetan baita ere kontabilizatu nahi ditugu kobratu gabe egiten diren lanak, zeren gure festa borondatezko lanean oinarritzen dira, eta irabaziak hortik datoz”.

Nola daude eskola txikiak?

Eskola Txikiak publikoak izanik ere, batzuetan beharrak izaten dira —eraikinak egoera kaxkarran daudelako, udalek oso aurrekontu txikia dutelako...—; eta duten neurriagatik etengabe ari dira irauteko lanean: kasu gehienetan, eskola berriak ireki edo mantendu dira herritarren ekinaren ondorioz, ez zuzenean administrazioak jarri dituelako. Festako diruak ez du



Eskola txikiko ikaslea, Nagore Iñurrategi Gipuzkoako Eskola Txikietako Gurasoen Koordinadorako zuzendaria eta Mikel Goñi Eskola Txikietako irakasleen koordinatzailea, Gabiriako festan. Ez du alferrik "Txikitasunean handi" hartu lelotzat.

erresistentzia kaxa funtzioa ere betetzen? Goñik hala erantzun du: "Eskola Txikietan beharrak baditugu, baina beste bide batzuetatik jorratu behar dira, ez da festa baliatu behar horiek asetzeko dirua lortzeko. Administrazioarekin harremanak mantentzea oinarritzkoa da. Administrazioaren inplikazioa bilatu behar dugu. Ni irakasleen koordinatzaile nagoen denboran sentitu dut administrazioa prest dagoela bide horiek jorrazteko, hitz egiteko... nahiz eta momentu batzuetan bere mugak jarri dituen". Adibideak jarri ditu: "Ezkio-Itzason eskola jarri dute eta beste leku batzuetan, adibidez Gatzagan ez dute zabaltzen utzi Lehen Hezkuntzako gela". Administrazioaren inplikazioa lortzen ez denean, bestelako bideak jorratu izan direla kontatu du: "Lizartzan euren burua oso estu ikusi zutenean, bertako gurasoak protestan hasi ziren eta eragina izan zuen. Arroakoak eta Oikiakoak ere bai, Alkizakoak ere ari dira... Ea horrela egoera onera ekartzen ditugun guztiak".

Ikuspegi orokorretik, eskola txikien egoera oso ona dela ziurtatu du: "Batzuk badaude, ordea, oso gaizki. Beste eskoletan dabilzan irakasleekin alderatuta, eskola txikietako irakasleek abantaila handiak ditugu haurren heziketaz arduratzeke. Zenbait kasutan zailtasunak ere

baditugu, dauden irakasleak mantentzeko, eta horretarako esfortzuak egin behar ditugu. Aurtan, adibidez, zenbait ate itxita topatu ditugu, beraz, badugu bide bat egin beharra berriz ere administrazioarekin eta baita irakasleonekin artean ere: metodologia lantzeko, gurasoekiko harremana lantzeko... Gai horiei heldu behar diegu".

Adierazi dute festako arautegia osatzeko beste arrazoietako bat horixe izan dela, eskola txikien sarean irakasle eta gurasoen arteko harremana asko zentratu izan dela festaren antolaketan, "festako tentsioan". Tokian tokiko gaiei heldu nahi diete aurrerantzean, zeren Iñurrategiren hitzetan, "eskola txikien arazo nagusia ezin da festa izan. Aipatu diren arazoak koordinadorari dagozkio". Aurreratu duenez, "festaren gogoeta egin ondoren, koordinadoraz gogoeta egitea tokatzen da. Harro egotekoa da Gipuzkoan hainbeste eskola txiki izatea, bakarretarikoak gara bizitasun hori mantentzen dugunak. Eskola txikietako gurasoen aldetik, Euskal Herrian bakarretarikoak gara hain ongi antolatuta gaudenak. Koordinadorak potentzial handia du, hileroko dinamika sendoa. Eta koordinadoraren balioaz jabetu eta bere indarra gehiago baliatu behar dugu. Duen funtzioa berreskuratu behar dugu. Hori dugu etorkizuneko erronka". ■



XXVII. Rikardo Arregi Kazetaritza Saria 2015

Ekainaren 27an, larunbatean
eguerdiko 12:00etan
Andoaino Bastero Kulturgunean





DANI BLANCO

**Garbiñe
Biurrun
Mancisidor**



LEGELARIA

Datozen lau urteetako garai berria: bai ala bai

ENEGARREN ALDIA DA “garai berriaz” mintzatzeko naizela eta enegarren aldiz horretaz sinetsita nago. Askotan berritasunak gertatzen dira, eta bestetan, benetako iraulketak. Oraingo honetan aldaketa sakonaren aurrean gaude, edo behintzat, horretarako aukeraren aurrean.

Nire aurreko kolaborazioan, M24ko hauteskundearen emaitzak jakin bezain pronto, nire zalantzak azaldu nituen, batez ere lortuko ziren itunekiko eta batik bat, indar batzuen jarrerekiko. Nire kezka ez dira erabat ezabatu, baina ez dira erabat gauzatu ere.

PSEren eta PSNren erabakiak orain arte nahiko aurreikusgarriak izan dira: beraiek jarritako “marra gorria” ez dute gainditu. Horrela, ez dute behintzat EH Bildurekin batera egin –udal handienetan, Iruñea edo Gasteiz, alegia–. Gainera, EAJri esker, oso etekin onak aterako dizkiete izandako emaitza kaskarre.

Bi esparru ari dira sortzen: esparru berri bat, non eragile, alderdi eta itun berriak dauden, aldaketa berri baterako, eta bestetik, esparru ezaguna, non “betiko aldaketa” proposatzen zaigun. Lehenean, hainbat indar eta estilo ezberdinak elkartzen ari dira, iraulketa aurrera ateratzeko, gobernatzeko era zaharkitua alboratzeko. Bigarren, betiko bi indar nagusitzen ari dira –EAJ eta PSE–, aspaldiko ituna zaharberrituz

Podemos eta beren marka desberdinak aldiz –ezin denak aipatu hemen–, ez dute marra gorriarik ipini eta askatasunez aritu dira, bai Nafarroan, baita EAEn ere. Garbiena, Iruñeko bozketa izan da. Bertan Joseba Asironek EH Bildu taldearen botoak, Geroa Bai, Aranzadi (Podemos) eta Izquierda-Ezkerrarenak jaso ditu alkatetzat lortzeko. Oso kontuan edukiko zuten Aranzadikoek zer-nolako ondorioak ekarri zitzaizkeen beren erabakiak, batez ere Estatuan, baina, halere, aldaketaren alde egin dute inolako konplexurik gabe.

Dena den, bi esparru desberdin sortzen ari direla esango nuke –garai batean zirkuetan pista bat baino gehiago zegoen modura–: alde batetik, esparru berria, non eragile, alderdi eta itun berriak dauden, aldaketa berri baterako, eta bestetik, esparru ezaguna, non “betiko aldaketa” proposatzen zaigun. Lehen espazio horretan hainbat indar eta estilo elkartzen ari dira, iraulketa aurrera ateratzeko, batez ere gobernatzeko era zaharkitua alboratzeko. Bigarren espazioan betiko bi indar nagusitzen ari dira –EAJ eta PSE–, aspaldiko ituna zaharberrituz.

Lehen espazioa ez da orain EAEn zabalduko, ez orokorrean, noski. Hori da EAJren eta PSEren arteko itunaren arrazoia, hau da, euren nagusitasuna bermatzea eta aldaketa garai honetan akordioa kokatzea, datozen 2016ko hauteskunde autonomikoei begira. Baina esparru horretan ez da aldaketarik ikusten, ez aldaketa sakonik behintzat. EAEn bi alderdi horiek izan dira nagusi betidanik –nahiz eta batzuetan koalizioan gobernatu duten beste batzuekin–. Beste erakundeetan ere, azken lau urte hauetan izan ezik, nagusi izan dira. EAJ batez ere. Beraz, aldaketa, zereikiko?

Bigarren espazioak dauka benetako erronka. Orain lau urte EH Bilduri aukera iritsi zitzaion, baina herritarrek egin duten hautaketa ikusita, ez du ondo garatu eta aprobetxatu nonbait; Gipuzkoan batez ere. Esperientzia ezin hobea izan da hausnarketa sakona egiteko “gobernanza” estiloari buruz, eta praktikotasun handikoa datozen lau urte hauetarako, Nafarroan batez ere. Hor bai aldaketa: indar berriak –batzuk benetan berriak, orain sortutakoak– hainbat udaletan, eta seguruenik, Foru Erkidegoaren Gobernuan; betidanik boterea kudeatu –eta gaizki erabili– izan duten alderdiak baztertuta –PSE barne?–; azkenik, ezberdinen arteko itun berriak lortuz. Aukera paregabea da kultura politikoa aldatzeko, hau da, indar politikoen eta herritarren artean estiloa, ardura eta erabakiak partekatzeko moduak.

Ea garai honek, denon mesederako, luze irauten duen. ■



Fermin Erbiti

KAZETARIA ♦



DANI BLANCO

Porrotaren alde

PSIKOLOGO ETA PEDAGOGO guztiak bat datoz: porrota bizitza honetan gauza segurua denez, galtzen ikas-tea ahalik eta azkarren gainditu beharreko irakasgaia da. Galtzen ikasi, hortik etekinik ere atera dezakegula ahantzi gabe, porrotaren alde onari erreparatuz. Izan ere, gauza jakina da porrota ikasbide paregabea izan daitekeela, oso lagungarria etorkizunerako. Bizitzaren ibilbidean bosturteko batzuk eginak dituen edonork badaki, ongi jakin ere, porrotei zor dizkiegula ikasi ditugun lezio hoberenak. Eta horren alde onez hausnarketa egiten hasiz gero, ezin aipatu gabe utzi galtzailearen erakargarritasuna, bereziki zineman edo literaturan. Bitxia da: horretan, galtzaile irabazle.

Barcinak-eta, beraz, bazuten kontsolamendurik. Horri muzin eginez, ordea, galtzen ez dakien haur ergelaren papera jokatu nahiago izan dute: gola sartzen badidate, baloia hartu eta espantuka hasiko naiz, aurkaria ahalik eta gehien kakazten dudana bitartean. Porrotak eskatzen duen autokritikatik, noski, arrastorik ez.

Kontua da protagonistak adinez nagusi izateaz gain, gutxieneko erantzukizun politikoa erakutsi behar lukeela. Ez da, beraz, batere eredugarria amo-

rrazioari ezin eutsiz Madrila joan (Madrila, beti Madrila!) eta han Nafarroa Alemania naziarekin parekatzea. Beste guztiak baino askoz *nafarrrrrrzale* omen zen hautagaiak ere hobe apokalipsi ekonomikorik iragarriko ez balu, helburua ez bada Nafarroa bera ahalik eta gehien kaltetzea.

UPNk deabruzat duen EH Bilduren erreakzioa eredu har zezakeen, askoz txukunagoa izan baita. "Herritarrengandik urrundu gara. Umiltasun handiagoa behar dugu". Horixe esan zuen Hasier Arraizek Gipuzkoako emaitzak ezagututa

UPNk deabruzat duen EH Bilduren erreakzioa eredu har zezakeen, askoz txukunagoa izan baita. "Herritarrengandik urrundu gara. Umiltasun handiagoa behar dugu". Horixe esan zuen Hasier Arraizek Gipuzkoako emaitzak ezagututa. Esaldia azpimarratu beharrekoa iruditzen zait, irabazlearen bekatu nagusiak ederki laburbiltzen dituelako: herritarrengandik urruntzea eta harrokeriaz jokatzeko.

Galtzen hain esperientzia luzea duten nafar agintari berriek erronka asko dituzte. Aurrekoen jokamoldea ez da eredu txarra, kontrakoan tematzeko: lubaki gutxiago eta zubi gehiago; botoa eman ez dietenak ere kontuan hartu; diru publikoa gardenago eta eraginkorrago kudeatu...

Eta, faborez, apal joka deatela. Izan ere, politikaren ofizio korapilatsuan espanturik gabe galtzen eta irabazten dakien jende apala behar dugu. Aldatu beharrekoen zerrenda luzean, hori ere ez ahantzi! ■

XDZ



Joanes
Etxebarria

♦

KAZETARIA

Mitologia, zertarako?

ATHARRATZEN laster irekiko dute euskal mitologiaren etxea. Zuzen errateko, turismo bulego berri bat irekiko dute eta etxearen gaineko parte euskal mitologiaren gunea izanen da. Lau artista gaztek osatu Kakots kolektiboa da edukiaz arduratu, Claude Labat ikerlari ezagunaren laguntzarekin. Erran dezadan, gauzak argi uzteko, anaia eta beste hiru lagun direla gazte horiek. Parametro hori kontuan harturik, nahi den bezala har daiteke ondoko ohar hau: edukian eta forman, gune horren zentzuaz konbentzitu naiz, egin dituzten testu, marrazki, bideo eta altzari batzuk

ikusit ditudalako. Eta besterik gabe, haiengan konfiantza dudalako.

Baina gune horren erabilpenak gehiago kezkatzen nau. Turismoari norabide berria eman nahi diotela entzuten da azkenaldian, baina beldur naiz interes ekonomikoek baizik ez dituztela aldaketak gidatuko. Mantendu daitekeena datu hau da: gaur egun arte, bisitari kopurutik ehuneko gutxi baizik ez baitira hego Euskal Herriko bisitariak, turismo bulegoak indar guti —edo batere— egin du arreba-anaia euskaldunak erakartzeko. Agian, euskal mitologiaren etxea amu bilakatuko da. ■



Andoni Mujika

♦ IRAKASLEA

Eredua?

INTERESATZEN ZAIT euskal indar politikoei gaurkotasanaz egiten duten irakurketa orokorra ezagutzea; baina diagnosia baino gehiago, jakin nahiko nuke gai estrategikoetan zein den etorkizunerako proposatzen duten norabidea eta nolakotasuna gauzak egiteko. Ea zerbait berritzailea dioten, behingoz.

Zentzu horretan azken bi-hiru urteetan ikusi izan da (Espainia mailan indar handiagoz) mugimenduren bat. Proposamen politiko berri horiek ezkerren eremu soziologikoan antzeman dira nagusiki; eta lotuta egon dira –zoritxarrez– erreakzio mekanismoekin: krisiak eragindako haserrea, ustelkeria eta gauzak egiteko kultura kazikea. Baina, esan behar dut, gizarte ereduaz diotena zehaztasunik gabea iruditzen zaidala; eta bestetik, esan dutena ez zait ez berriegia, ez erakargarriegia egin.

Euskal ezkerretera etorrita, honek ere argitu beharko luke bere herriarentzat estrategikoak diren esparruak zeintzuk diren, eta batez ere, horien aurrean zein erantzun daukan. Zein da bere ere-

Euskal ezkerretera etorrita, honek ere argitu beharko luke bere herriarentzat estrategikoak diren esparruak zeintzuk diren, eta batez ere, horien aurrean zein erantzun daukan. Zein da bere eredua? Uste dut interesatzen zaidan honetaz ez dela inoiz garbi eztabaidatzen eta posizionamendua hartzen

dua? Uste dut interesatzen zaidan honetaz ez dela inoiz garbi eztabaidatzen eta posizionamendua hartzen. Gurean ere ezkerre anitza da. Anitzegia ote? Eta etorkizuneko gizarte ereduaren eztabaida egin gabe dauka ausardiarekin eta serio. Herriarrok, behinik behin, ez dugu ulertu zein den proposamen hori.

Eztabaidaren ariketa horretan lurra hartuz, puntu konkretu batzuen inguruan erantzunak eskatuko nitzioke euskal ezkerreari:

Bat. Kudeaketa publikoa eta eskubide unibertsalak bereizi ditzala. Gauza bat da pertsona guzti-guztiek izatea edozein eskubide, eta beste bat, oso ezberdina, nola eskaintzen den hori: kontzertazio bidez, autoeraturaz, administrazioak zuzenean kudeatuta funtzionarioen bidez, baldintza exigenteak jarrita azpikontratatzeko enpresari... Eskubide hauek ez dira nahitaez kudeaketa publikoaren bermatu behar. Bermatu egin behar dira.

Bi. Ekonomiaren garapenerako norabide bat. Zer uste du autoeraketaz? Eta ekonomia sozialaz eta solidarioaz? Zeintzuk dira, interesgarriak iruditzen bazaizkio, ekonomia horiek bultzatzeko bere politika zehatzak?

Hiru. Hari horri jarraituta, zein da euskal ezkerrearen industria eta inbertsio politika?

Lau. Nola ez desaktibatu, laguntza sozialen bidez, pertsona eta taldeen ekimenerako motibazioa?

Dena zorren zorroan gera ez dadin, euskal ezkerreari aitortu behar zaizkio dohain batzuk, adibidez: ingurumenean, zintzotasunean, hizkuntza politikan eta berdintasun zein justizia ekimenetan. ■



DENA PREST

Datorren ikasturterako testuliburuak eta ikasmateriala dagoeneko prest dituzu gure liburu-dendetan edo elkar.eus webgunean.

Etorri eta erreserba itzazu!

elkar



www.elkar.eus

ALGORTA · ARRASATE · BAIONA · BASAURI · BERGARA · BILBO · DONOSTIA · GASTEIZ · HERNANI · IRUN · IRUÑEA · TOLOSA

Bertsio bat



UNAI FDZ DE BETOÑO

**Fredi
Paia Ruiz**



1

Apirilak hamazortzi
behe-lainodun basoak
ikasgelan pausoak
ta hiru politikari
gaur heterodoxoak
otzandutako otsoak
esan zutenari buruz
jarri ditut bertsoak
gordez diskrezioak
isildutakoei buruz
beste sorta oso bat.

2

Egiguren sozialistak
maite du historia
landu du teoria
alderdirik zaharrenaren
Eibarko memoria!
mailuen prosodia
klandestinitatea zein
lagunen hilobia
liberalen noria
aurreikusiz abertzaleen
ametsen galzoria.

3

Ibarretxe jeltzaleak
poz ilusioz gainez
Jose Antonio Agirrek lez
AEB-tan “Basque Case” landuz
sortu du mila interes
euskara zein ingeles
Michael Kittyng, Helen Clarck ta
John Adamsen babesez
mintzo da askapen bidez
zergatiak argi ditu
baina zelan egin ez.

4

Xabier Zubizarreta
hirugarren aingura
euskal hitzun modura
irradi barruko abadeen
garaiez oroitu da
euskalgintza purpura
hizkuntzaren osasuna
gizarte kontestura
mugatzeta du gura
norbanakoei kentzeko
zama horren ardura.

5

Domekaz Lorea Agirrek
Korrika deseraiki
eskatuaz zenbaiti
“bazterretik plazan zehar
erdigunera jaiki!
ahaldunduz emeki
bagara nor ahizpa maite
eginez izan beti
taldetasun aterki!!”
galderak erantzun dira
bihurtzean olerki.

6

Bakoitzak bere iritzi
bere tra(d)izioa
bere obsesioa
bertso bidez laburtzea
zen nire misioa
testu honen zioa
objektibotasunak du
bere objektzioa
falta du pasioa
nire bertsoena, noski,
da nire bertsoia
nire dibertsioa.

Doinua: Biribila da lurgaina.

* HUHEZIk antolatutako Euskal Kulturgintzaren Transmisioa graduondokoan jarritako sorta.

ERDIKO KAIERA

EUSKAL ANTZERKIA

Loraldi kolektiboa

Zerbait gertatzen ari da. Instituzioetatik urte luzetan bultzatu den kultur ereduak ez diela balio ohartuta, gero eta gehiago dira periferiatik bestelako formulak probatzen ari diren antzerki konpainiak. Talde lanean ari dira, eredu horizontalagoa aldarrikatuz. Horietako hiru laguni –Itziar Eliasi, Eneko Sagardoyri eta Ainara Gurrutxagari– galdetu diegu egungo antzerki panoramaz, dituzten zailtasunez eta erronkez.

| KEPA MATXAIN |



2010ean estreinatu zen *Errautsak* antzezlanak Artedrama, Dejabu eta Le Petit Théâtre de Pain taldeak elkartu zituen; hiru urte geroago *Hamleten* bildu ziren talde berdinak. Dena den, horrelako aliantzak ez dira ohikoenak euskal antzerkian.

MUGIMENDUA sumatzen da euskarazko antzerkian azken urteotan. “Jende asko ari da gauzak esan nahian, eta publikoa, berriz, hartzeko gogoz. Indar handiko unea da”, dio Dejabu Panpin Laborategiko Ainara Gurrutxagak. “Periferian lore asko daude eta, orain, agian, haiengan jarri dugu arreta”, dio Lauka Teatroko Eneko Sagardoyk. Ez da proposamen artistikoei buruz bakarrik ari. Lan moldeetan ere garai emankorra da euskarazko antzerkian. Lekua eta errekonozimendua irabazten ari da lan egiteko modu kolektiboa. Loraldi hori ez da hain bistakoa agian, baina bai funtsezkoa, Sagardoyren ustez. Itziar Eliasi, berriz, iruditzen zaio, urtetan kanpora begira egon ostean, “gureak direnak gure hizkuntzan sortzen” hasi dela berriro euskal antzerkia. “Dauden eskaintza gehienak taldean sortuak dira, edo euskal sortzaileraren batek, literaturatik, musikatik, etxetik abiatuta”. Horretan ere aldaketa nabari du.

Hiruretan gazteenak, Sagardoyk, duela bi urte sortu zuen Lauka Teatroa, beste hiru lagunekin batera. Taldearen filosofiaz hitz egitea zail egiten zaion arren, ideia batzuk garbi dituzte: taldeko behar artistiko eta pertsonalak entzun, eta horien arabera sortzen dituzte obrak, merkatuari asko erreparatu gabe –bai, ordea, publikoari–; sormen prozesua kolektiboa da; euskaraz egiten dute antzerkia, eta, aberastu ez, baina antzerkitik bizi nahi dute. Erreferente dituzte, besteak beste, Durangoko Karrika Antzerki Taldea, Artedrama, Kabia Laborategia, Dejabu Panpin Laborategia eta Metrokoadroka. Eliasek ere talde lana du oinarri, eta, une honetan, euskal antzerkian, Dejabukoek liluratzen dute gehien, “obrak sortzeko eta kontatzeko duten moduagatik”. Gurrutxagak azaldu du nolakoa den modu hori: “Antzerkia ulertzen dugu arte bizi bat bezala eta, beraz, laborategia behar genuen. Era berean, ohartu ginen antzerkia oholtzan sortu behar genuela. Euskal antzerkia oso intelektuala zen orduan, baina indarra falta zuen. Guk sentitzen genuen esperimentazioaren bidez sortu behar genuela. Azkenik, kolektiboki lan egin nahi genuenez, ezinbestekoa zen konpainia modu berezian antolatzea, ahalik eta era horizontalenean”. Horra Dejabukoek mezua: sortzaile izatea, ez soilik antzezlanetan, baita lan egiteko moduan eta konpainiaren egituraren bertan ere. Eta horretarako, nagusi den profesionaltasun ereduari egin behar zaio aurre.

“Periferian lore asko daude eta, orain, agian, haiengan jarri dugu arreta”

Eneko Sagardoy

“Kulturan gabilitzanok ere gure ekonomiak sortu behar ditugu. Beti izan gara estatuaren menpeko”

Ainara Gurrutxaga

Instituzioak, historiaurrean

Gurrutxaga kritiko da instituzioetatik bultzatu den kultur ereduarekin, eta gainontzeko diziplinei bezala, antzerkiari ere izugarri eragin diola iruditzen zaio. “Hemen ez da jakin izan kudeatzen arteak eta kulturak gizartean behar duen tokia. Baldintza berdinak jartzen zaizkio torlojuak egiten dituen bati eta antzezle bati. Zure enpresa egin behar duzu, eta enpresak diruz bideragarria izan behar du. Irabaziak badituzu ondo, bestela agur. Hor geratu gara”.

Oraindik enpresa egiturako konpainiek baino ez dituzte jasotzen diru-laguntzak Hego Euskal Herrian –Ipar Euskal Herrian bestelakoa da egoera–. Gurrutxagak uste du, ordea, antzerki enpresa gehienak sistema horren biktima bihurtu direla. “Diru-laguntzak eskuratzeko, sartu dituzte beren egituretan administrariak, banatzaileak... eta horrek ito egiten zaitu”. Hala ere, antzokietan inor nagusitzekotan, konpainia horiek nagusitzen dira. “Loraldia diogunean ari gara piztaldi kreatibo batez, egiteko modu desberdinez, baina, gutxi batzuk salbu, jende hori oraindik ez da antzokietako zirkuitu ofizialetan sartzen”. Horren aurrean, Dejabukoak beste konpainiekin elkartu izan dira urteotan. Artedramarekin eta Le Petit Théâtre de Pain-ekin elkarlanean sortu dituzte bi obra –*Errautsak* eta *Hamlet*–, eta antzokiak bete zituzten. Salbuespena dira, ordea.

Instituzioen hautaketa irizpideek ere eredu bakar bat indartzen dute, Gurrutxagaren irudiko: “Normalean konpainia handienak laguntzen dira, kanpora begira saltzen dutenak, guztientzako antzezlanak egin ditzaketenak. Era berean, emanaldia bultzatu da, sormena beharrean. Hemen funtzionatzeko modua izan da: zure produktua erosten dizut antzoki batean egiteko. Baina, aldiz, ez dute utzi guk kudea ditzagun espazioak”. Hala ere, bururatzen zaio azkenaldiko eredu egoki bat: Zubi deialdia. 2012an hasita, hainbat udaletako kultur kudeatzaileak euskal antzerkia bultzatzen ari dira, urtero sortzaile berriak lagunduz. Iaz Lauka Teatroari eman zioten diru-laguntza, eta horri esker ari dira orain *Amodioaren ziega* obra eskaintzen. “Zubi bezalako laguntzak behar ditugu”, dio Sagardoyk. “Instituzioek sorkuntza bera ezagutu behar dute. Hitz egin behar dugu. Guretzat haiek zementuzko mamotreto itxiak diren bitartean, gu haientzat produktua hutsak izango gara. Gauza asko ditugu apurtzeko, eta batez ere sortzeko”.

Egiturak baldintzatuta

Eliase kasua berezia da: ez da antzerkia egiteko sortu den talde bateko kide. Alderantziz, antzezlan baten bueltan bildu den talde bat da beraiena. Berak istorio bat kontatu nahi zuen, eta zinemara jo zuen hasieran. Horrela ezagutu zuen Izaskun Arandia produktore eta gidolaria. Gero, zinemako gidioa oinarritzat hartuta, istorioa antzerkirako moldatzen hasi zen. Antzokietan dabil orain, baina administrazio kontuak Arandiaren IZAR Films enpresak egiten dizkio, eta zortekotzat du bere burua.

Gurrutxagaren Dejabu eta Sagardoyren Lauka berriz, kultur elkarte dira egituraz. Diru gutxien eskatzen zien egitura dela azaldu du Sagardoyk. “Enpresa izateko diru-sarrera jakin batzuk beharko genituzke, diru asko. Ezingo genuke mantendu. Ez da hautu pertsonala izan, nahiko behartuta sentitu gara”. Gurrutxagak antzera uste du: “Enpresa sortzeak eskatzen du lantaldean administrazio lanetarako norbait finko edukitzea. Paperak egin, diru-laguntzak eskatu... Guk ez genuen gure burua horretara lotuta ikusi nahi”. Kultur elkarte izateak baditu abantailak: diru sarrera gutxirekin eta ezegonkorrekin aurrera egin daiteke nola edo hala. Aldiz, egitura hori edukitze hutsagatik ezin dituzte diru-laguntza asko eskatu: Eusko Jaurlaritzak ekoizpenerako ematen duena edota antzerki konpainien bi urteko jarduna sustatzen duena, kasurako. Gainera, Jaurlaritzak antzokiekin hitzartutako zirkuitutik kanpo gelditzen dira, arrazoï berberagatik. Frantziako legedia bestelakoa denez, Ipar Euskal Herrian laguntzen dituzte kultur elkarteak, eta horri esker jaso zuten Dejabukoek diru-laguntza txiki bat *Arrastoak* lanerako.

Esperimentaziorako unea

Euskarazko antzerkia une gozoan bada ere, asko dira aurrera begirako erronkak. Eliasi bururatzen zaizkio batzuk: lana euskaraz egiteko duten eskubidea, aurretik egindako guztiaren memoria berreskuratzea, eta, batez ere, ikusleak hezte. Sagardoyk, oster, sare baten falta sumatzen du: “Ez gaude ondo lotuta. Soltean ibiltzen gara, han eta hemen indarrak metatuz. Nazio mailan ez daukagu proiektu solidorik gure kezkez, lan egiteko moduez edo proiektu bateratuez hitz egiteko”. Komunitate emankorra baina oso disolbatua da euskarazko antzerkiarena, bere ustean.

Hizpidera ekarri du Dantzerti, datorren ikasturtean zabaltzekoa den antzerki eta dantza “unibertsitatea”. Urtetan antzerki eta dantza profesionalean euskaraz formatzeko hutsune handia egon dela iruditzen zaio, eta garaia dela euskara erdi-erdian jartzeko. “Berri ona da eskolarena, baina hor ere borrokatu



Dejabu Panpin Laborategiaren *Arrastoak* obrak Ipar Euskal Herrian jaso du diru-laguntza. Bidasoaren hegaldetan ezin, kultur taldea direlako eta enpresa izatea eskatzen zaie Jaurlaritzan laguntzak eskatzeko.

beharko dugu euskaraz jarduteko, euskal aktore eta dantzari profesionalak hezteko”.

Gurrutxagak ere ikusten ditu aldatu beharreko kontuak. “Kultur sistema burokratizaturik dago, oso eskema zaharretan funtzionatzen du eta eskema horren hormak hormigoi lodikoak dira. Dinamita dezente beharko dugu hori zartatzeko. Baina hau da unea esperimentaziorako, asmatzen saiatzeko nola nahi dugun bizi kultura, artea eta gizarte”. Aldatu nahi luke, orobat, espazio publikoekin gertatu ohi dena: “Ohitu gara espazio publikoak pribatuak balira bezala kudeatuak izatera. Udal batek izan dezake antzoki bat, baina hor sartzeko bost orrialdeko eskaera bete behar da, ordu jakin batzuetan soilik erabili daiteke... Zergatik ez utzi herritar talde baten esku?”. Badu azken erronka ere: “Kultur gabiltzanok ere gure ekonomiak sortu behar ditugu. Beti izan gara estatuaren menpeko. Diru-laguntzak jasoz gero ongi, eta bestela ez gara existitzen. Bada ez. Pentsa dezagun ea nola arraio bizirautean dugun antzerkitik, kulturatik. Eralda dezagun ekonomiatik ere”. ■

«Maitemindu naiz, nolabait, liburuko emakume guztiekin»

Elena Lopez Aguirre Gasteizko kazetari beteranoak musika bete-betean bizi izan duten Euskal Herriko 25 emakumeren bizipenak jaso ditu *Neskatxa maite. 25 mujeres que la música vasca no debería de olvidar* (Ediciones Aianai / Baga-Biga) liburuan. Batzuk besteak baino ezezagunagoak dira, baina historiak ez du bat bera ere nabarmendu; eta hemen jasotakoa ikusita, merituek ez zaizkie falta.

| IKER BARANDIARAN |

Argazkia: Alex Larretxi

Liburu honen helburua justizia egitea da?

Jakina, historiako ahaztuenak emakumeak garelako. Pedro Espinosak eta biok 1993an sortutako argitaletxeak (Ediciones Aianai) beti izan du hutsune bat betetzeko helburua. Lehen liburuak, *Hertzainak. La confesión radical*, gure musika historia kontatu nahi zuen, atzerriko erreferentziez paso eginda. *Del txistu a la telecaster*-ekin azalerazi nahi izan genuen euskal rock musikariak ez datozela country, western ezta bluesetik, txistu, triki edo dultzainatik baizik. Hirugarrena, Pedro eta biok parte izan garen Potato taldearen biografia izan zen. Eta *Edozein herriko jaixetan*, Euskal Herriko rock garaikidearen entziklopedia da. Liburu perfektua da oraindik idatzi ez dena; eta gureak bihotzaren zati handi bat jarrita egindako liburu apalak dira. *Neskatxa maite* beste pauso bat da bide horretan.

Zertan oinarritu zara 25 emakume hauek aukeratzeko?

Ez nintzen arrakastaren bila joan. Protagonistetako batzuek, ezezagunak izan arren, ikaragarritzko ibilbide profesionala dute. Arantxa Gurmendi izan zen aukeratu nuen lehena. Euskal kantagintza berriaren aitzindaria da. Askotan Soroak taldea aipatzen da, baina Biurriak ahazten dugu. 2012an elkarriketatu nuen. Urte berean Begoña Larrañaga eta Marivi Ibarrola elkarriketatu nituen. Biak Madrilén bizi dira: 1960ko hamarkada hasieran Begoña haur prodijioa zen eta konjuntoren

urrezko garaian lan handia egin zuen. Oso jende gutxik ezagutzen du bere biografia mar-dula. Marivik 2012an *Yo disparé en los 80* liburu-a argitaratu zuen. Ez nuen aurretik pertsonalki ezagutzen, baina bere ibilbidea oso anitza da: *DVOrameko* kolaboratzailea, Nola! diskoetxe-ko koordinatzailea, Gasteizko Musika Bideo Jaialdiko zuzendariordea... Laugarren elkarriketa Marta Aldamari egin nion. Pléyade taldeko abeslaria, La Xeta Pasote eta Reverendo Parker taldeetako bateria jotzailea, eta Hertzainakeko saxo jotzaile Tito Aldamaren alaba.

Tartean geldiune bat izan nuen, eta 2014an Gasteizko Jazz jaialdiaren zutabe den Blanca Sanzen hitzak jaso nituen. Eta horrela elkarriketak pilatuz joan eta bat-batean 25 nituen. Izan zitezkeen 50 edo 100.

“Ezezagunak izan arren, liburuko protagonistetako batzuek ikaragarritzko ibilbide profesionala dute”

Emakume hauen hitzak jaso izana ohorea izan dela diozu...

Miresten dut emakume borrokalarien izaera. Nahi izan dutena egin dute, oztopoei aurre eginez. Guztiez maitemindu naiz nolabait. Guztiak dira desberdinak eta horren bila joan nintzen, aniztasuna nahi nuen. Horregatik, esaterako, aukeratu nuen musika garaikidea konposatzen duen Zuriñe F. Gerenabarrena.

Zu ere liburu honetako protagonista izan zintezkeen. Zeintzuk izan dira zure ereduak?

Lehen musika eragina amarengandik jaso nuen: Dalida eta María Dolores Pradera. Eta 1960ko hamarkada erdiko telebistari esker Vainica Doble deskubritu nuen, haien ahots

jokoak eta izaera aldarrikatzailea. Musikari dagokionez, Ceciliak gogor eragin ninduen 70eko hamarkada hasieran: bere hitzek, irudiak eta konposatzaile borobila izateak. Patti Smith oso erreferente garrantzitsua da; Pretenderseko Chrissie Hynde eta berak idatzitako *Back on the chain gang* luzaroan izan ditut alboan; baita Aurora Beltranen *El chico de la mirada asustadiza* ere, gizonezko ereduakin apurtuta rocka egiteko ikasgaia dena. Garrantzitsua izan da Belen Mijangos kazetaria eta *El Tubo*ekin egin zuen lana. Laurie Andersonen *O Superman*en egindako lanak txunditu ninduen; Cindy Lauper eta *Time after time*, Amaral Gasteizera etorri zen lehen aldiari sei ikasle geunden eta zur eta lur utzi gintuen; Rosana oso gustuko dut, Anari barruraino heltzen zait, Mursegok aho bete hortz uzten nau...

Musikatik at, emakume gisa, eta hortaz XX. mendeko bigarren mailako herritar gisa, zapaldukin enpatia berezia dut. Emakume izateak behatzeko modua aldatzen dizu. Baita Saharan hamar urte bizi izanak eta Potato taldeko abeslari Juantxo Borikó ginearra hurbileko laguna izateak. Horregatik hunkitzen naute Afrikako emakumeen lorpenek.

Liburu honek zeharka Gasteizen aldarrikapena egiten du, 25 protagonistetatik 11 hiri horretakoak baitira.

1970eko hamarkadako Fausto talde itzeleko gitarra jotzaile Kepa Osések behin esan zidan, 1960ko hamarkadan Gasteiz zela musikari gehien zuen Euskal Herriko hiria. Eta horren uztan begi bistan dago. Carmelo Bernaola Kontserbatorioaren zuzendaritzara heldu izana erabakigarria izan zen, berau modernizatu eta pentsaerak ireki zituen. Luis Aramburu Udal Musika Eskola eratu izana ere oso garrantzitsua izan zen. Horra hor, beste batzuen artean, 18 urte dituenetik, dozenaka talde eta proiektutan aritu izan den Laura Ortega: dantzaldi-taldeetan, Potaton, Gasteiz Big Banden, Malatun... Eta umeen musika irakaskuntza iraui duen Ana Isabel Bravo; ibilbide luzea duen Begoña Divar... Balio handia dago hiri honetan.

Zure liburu guztien marka da testuingurua ederto erretratatzeko dutela...

Jakin-mina izan dut beste musikari batzuekin, inguruko eraginekin, anaia nagusiekin, gurasoekin edo familiako musika aurrekariak. Iraganarekin lotuta gaude bai ala bai; eta beste garai batean musikariek kasinoetan, elkartetan, zinema aretoetan eta irratietan jotzen zuten. Zoritzarrez, gaur egungo belau-naldiek bolbora asmatu nahi dute eta La Pollak abesten zuen moduan tradizioa mada-rikazioa dela uste dute.



Gasteizeko protagonismo berezia dauka liburuan, hiri horretakoak baitira liburuako 25 izen nagusietatik 11. Lopez Aguirrek, musikaren historiak baztertuta eduki dituen emakumeak lehen planora ekartzearekin batera, Arabako hiriburuaren musika-historia ere aldarrikatu du.

Gaur egun emakumeek rockean duten presentzia aldarrikatu eta handitzeko Emarock gisako proiektuak daude, baina esango nuke ez dela askorik aldatu. Zuk zer diozu?

Ez nago ados. Egunetik egunera emakumeok orain arte itxita genituen esparru berriak konkistatzen dihardugu. Silvia San Miguel piano jotzailearen erreflexioa ekarriko dut hona: "Emakume izateagatik lortuko ez duzula uste baduzu, zure aurka egiten duen energia negatiboz betetzen ari zara". ■

Haur eta gazte literatura

Yummaren urrezko bola
Pello Añorga
Irudiak: Jokin Mitxelena
Denonartean, 2014



Sorpresa atsegina

“BEHIN BATEAN, herri txiki batera iritsi zen familia bat: ama eta alaba Yumma”. Honela hasten da Pello Añorga eta Jokin Mitxelenaren artean eginiko ipuin hau. Eta hasierak adierazten duen ipuin klasikoaren usain hori mantentzen da narrazio guztian; antzinako kontakizunen egitura du liburuak eta antzinako kontakizuna izan zitekeen asmatu berria ez balitz.

Yumma txikia dugu ipuineko protagonista; herrira iritsi, amaren heriotza, honek ematen dion objektu magikoa (urrezko bola), objektua galtzean dituen arazoak, herritarren maitasuna, nola aurkitzen duen berriro urrezko bola, eta amaiera guztiz zoriontsua. Proppek proposatzen zituen ipuineta-ko funtzioak nabarmenki agertzen dira –herri ipuinetan ohikoak direnak– eta horregatik du kontakizunak istorio klasikoaren traza, egitura, usaina. Protagonistak galera bat du hasieran –deserriratuak dira eta ondoren ama galtzen du–, eta hainbat frogas gaingiditu behar ditu –inork argitzen ez duena gaixotasuna sendatzeko modua, batik bat–, amaieran zoriona lortzeko: “–Gora gure erregina –deia- dar egin zuten denek. Yumma, orduan, loriatuta, salatik atera eta ibiltzen hasi zen herrian barrena, oinutsik, zoriontsu, urrezko bola bezain argi, mai-tagarri eta distiratsu”.

Liburu hau ipuina dela esan dut, ipuin ilustratua dela esan beharko genuke eta ez albuma, testua ira-

kurritz –edo entzunez– argumentua jarraitu ahal delako eta Yummaren garapena, estutasunak edo poza ezagutu ditzakegulako; baina ezin da albo batera utzi Jokin Mitxelenaren lana ilustrazioen aldetik. Argumentuaren haria irudien bidez jarraitzeko baliabide egokia eta aberasgarria izateaz gain, Jokin Mitxelenak ederki erabiltzen ditu koloreak ipuinaren tonua indartzeko; areagotzeko Yummaren egoera, bidaia, larritasuna; eta era berean, urrutiko paraje batean kokatzeko, janzkerek, etxeek eta gainerako elementuek mende batzuk atzera eramaten baikituzte.

Alde horretatik, Pello Añorgaren eta Jokin Mitxelenaren artean egindako beste lan eder baten aurrean gaudela esan dezakegu. Irakurleak Yumma neskatoa, herritarren maitasuna bereganatu eta “printzesatxo” izendatzen dutena, ezagutuko du; berarekin bat egin eta heldutasunera iristeko bidaia- ren lekuko izan. Gure sortzaile hauen lanak ezagutzen dituztenentzako sorpresa atsegina da liburua, estilo aldetik aldaketa nabari delako; baina, era berean, Añorga eta Mitxelena tandemaren beste adibide bat da. Bai eta liburu ilustratuak eta albumak poliki-poliki gure artean hartzen ari diren indarraren eta kalitatearen adibidea ere. ■

Xabier Etxaniz Erle



- Abentura kirolak
 - Ezkonaurreko agurrak
 - Familiarteko jarduerak
 - Abentura bidalak
 - Material tekniko alokairuak
 - Eta askoz gehiago...

San Juan 18 - Albeniz-Asparrena (Araba) - Tel. 635 748 948 - 635 748 947
www.inguruabentura.com - info@inguruabentura.com







Xake
Makala Jazz Funk Band
Orrua, 2015

Dantza egin Makalarekin

MAKALA JAZZ FUNK BAND taldea da Makalaren egitasmo berria. Zarauzko musikari eta disko jartzaile ezagunaren banda musikari hauek osatzen dute: Antxon Sarasua (teklatuak), Ander Zulaika (bateria), Oihan Lopetegui (ahotsa), Martin Asarian (gitarra) eta Makala bera (baxua). Eskarmentu handiko musikariak dira denak, musikari handiak.

Xake diskoaren aurretik *Passion Fruit* (Orrua Diskak, 2014) eta *Orrua* (Orrua Diskak, 2013) EPak edo disko laburrak kaleratu zituen. *Orrua* EPko bi kantu *Xaken* ere entzun daitezke: *Orrua* eta *Wack Wack*.

Taldeak denbora gutxian hamaika emanaldi egin ditu Euskal Herriko, Kataluniako, Andaluziako eta Madrilgo hainbat jaialdi, areto, klub eta tabernetan; eta ez da harritzekoa, oso talde ona baita, eta haiekin erraza da dantza egitea edo gorputza mugitzea.

Musika afroamerikarra egiten dute. 50, 60 eta 70eko hamarkadetako doinu beltzak jotzen dituzte: jazz, rhythm'n'blues, groove funk eta disco soul. Doinu beroak eta gozoak. Kantu politak eta oso landuak, mimo handiz eginak.

Xake diskoa oso ongi grabatua eta ekoitzia dago. Makala eta Antxon Sarasua aritu dira ekoizle lanetan, eta lan aparta egin dute. Moldaketak arretaz zaindu dituzte, gehiegizko apaindurarik egin behar izan gabe. Musikariak trebeak dira, eta beren tresnak oso ongi erabiltzen dituzte. Oihan Lopetegik oso ongi kantatzen du, eta bere ahotsa leuna eta oso polita da.

Mikel Unzurrunzaga Schmitz *Makala* musikaren munduan murgildu zela hogeitau urte baino gehiago dira. Urteotan, areto ugaritan eta hainbat grabazio estudiotan eta irratsaiotan aritu da disko jartzaile, musikari eta ekoizle lanetan eta beste artista batzuentzako nahasketak egiten, baita ekitaldiak eta musika emanaldiak programatzen eta antolatzen ere.

Xake diskoaren aurretik lan hauek argitaratu ditu: *Global Funk Remixes 2004-2014* (Orrua Diskak, 2015), *Unexpected Tapas* (Lovemonk, 2011), *Selects Boom Shaka Laka* (Malandros-EITB, 2006), *Hondartzan* (Metak-Orrua Diskak, 2005) eta *Makala Plays*

Novophonic (Novophonic-So Dens, 2002). EP batzuk ere bai, eta abesti eta remix ugari kaleratu ditu UrbanWorld (Danimarka), Movimientos (Erresuma Batua), Agogo (Alemania), Freshly Squeezed (Erresuma Batua), Rip Curl (Japonia), High Note (Taiwan), Lola's World (Alemania), Wagram (Frantzia), Elkar (Euskal Herria) eta beste hainbat disko-etxerekin.

Zenbait talderekin eta artistarekin aritu izan da, eta disko jartzaile lanak egiten, besteak beste, Portugalen, Italian, Katalunian, Espainian, Frantzian, Belgikan, Holandan, Erresuma Batuan, AEBetan, Suitzan, Austrian, Alemanian, Eslovakian, Txekiar Errepublikan, Polonian eta Danimarkan, eta nazioarteko jaialdi ezagunenetan ere parte hartu du: Glastonbury, Sonar, Popkomm, Paulusfeesten, Womex, Jazzaldia...

2008. urtetik, hilero Global Funkers festak antolatzen ditu Euskal Herriko hiri nagusietan, Alice Russell & TM Juke, Nickodemus, Daniel Haaksman, Captain Planet, Sweet Vandals, Pete Isaac *Jelly Jazz*, Dusty *Jazz&Milk*, DJ Farrapo, DJ Click, Jim Avignon, JADD, Miqui Puig, Txarly Brown eta beste hainbat DJ eta artista ezagunekin... Gainera, Gaztean, Euskadi Irratian eta Groovalizacian Interneteko irratan ere aritzen da.

Musikazale amorratua eta langile nekaezina da Makala. Lantzen duen musika oso eklektikoa da. Doinu bero eta tropikalak jorratzen ditu, jazz, swing, soul, funk, reggae, ska, disko, cumbia, boogaloo, gipsy rhumba, Afrikako eta Brasilgo doinuak, latinoak... eta horiek guztiak erritmo berritzaileekin eta elektronikoekin nahasten ditu.

Musika bihotzetik ateratzen zaio, dantza egiteko musika beroa, eta musikak bizipoza ematen diola nabarmena da. Makala Jazz Funk Bandekin ere dantza egiteko eta ondo pasatzeko musika egiten du, alaitasuna eta bizipoza transmititzen dute. Bizimodua kaka bat izanda ere, aurrera begiratu behar baita, alaitasunez eta umore pixka batekin. ■

Joxi Ubeda

Bertso-zopa

Osa ezazu Oihane Enbeitak 2007an Abadiñon botatoko bertsoa. Laguntza behar izanez gero, bertsoari falta zaizkion hitzak zopan aurki ditzakezu.

Doinua: *Herri txikien negu gordina.*
Gaia: Gaur 60 urte bete dira Gernika borbardatu zutela.

Zeru aldera _____ eta
ez zegon txori faltarik,
ume guztiak _____ eta
_____ be galdurik.
Urteak joan eta _____
ez da hau ahaztu duenik,
oraindik _____ jausten baitira
_____ disimulaturik. (bis)

Han Gernikako _____ dago,
_____ daukagu ondino;
_____ ere joaten dira,
niretzako hainbat _____.
Pasatu zela sinbolikoa
badute _____ enpeño!
Ta sinbolo bat hura ez zen izan
errealitatea _____.

Alferrik gaude pasatu zela
ta aulkian _____,
eraikitzeako asko _____ da,
dena ez da horren _____!
Hala ta _____ positiboa
ere izan leike kritika,
_____ baten bibrazioan
zutitu _____ Gernika.



R	D	B	N	E	G	C	E	V	E	M	N	F	J	G	I
Z	H	C	I	R	R	I	N	T	Z	I	M	H	F	S	N
S	R	U	N	Z	U	T	I	K	H	A	I	N	B	A	T
G	F	D	P	K	A	T	S	I	R	U	T	I	F	S	U
U	B	A	C	U	N	G	T	A	L	V	R	R	I	T	R
E	A	V	L	R	R	M	U	A	Z	A	D	T	I	S	I
F	I	T	D	T	U	G	A	I	T	I	I	G	D	U	F
K	T	G	S	T	A	B	T	A	P	I	E	N	C	D	T
A	Z	E	U	L	I	Z	A	E	J	B	L	B	O	H	O
B	E	C	G	R	U	T	S	I	Z	H	H	O	I	U	G
N	N	N	R	G	A	E	U	B	N	G	C	N	P	T	F
O	N	O	J	O	R	S	A	H	G	A	Z	E	U	E	G
B	T	B	L	I	Z	I	O	N	K	O	R	R	I	K	A
E	R	O	T	A	N	B	E	A	L	O	B	R	A	F	R
Z	V	A	Z	O	I	P	Z	S	K	I	V	B	M	M	B

Sudokuak

Erraza

			6			8	4	
5	1	8			4			7
	3	6		7	8			5
	6	2	7		5			8
3		4		2		7		1
7			1		3	2	5	
8			9	1		3	7	
6			4			5	8	9
	7	3			2			

Zaila

3				2			1	7
					5		6	
				9		3		
				6	3	4	2	
			9		8			
	5	9	1	4				
		4		5				
	1		2					
7	2			3				4

Gurutzegrama

	1	2	3	4	5	6	7	8	9
1									
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									

CHERUBINO-CC BY SA



Goitik behera

1. Bat-batean.
2. Oraindik.
3. Kolore goibel.
4. Gor.
5. Fijiko gorputz natural.
6. Itsasontzietan, goiko ertz.
7. Zoru, zola.
8. Letra izena (pluralen).
9. Nafarroako mendia.
9. Nigerko hiriburuko biztanlea.

Ezker-eskuin:

1. Bogatzeko ekintza. Biki artifizia.
2. Sustrai mamitsu jangarri.
3. Pausaldi.
4. "Emaille onak ... ezpainetan".
5. Itxura bitxia. Tulioaren sinboloa.
6. Noren atzizkia. Silizioaren konposatu.
7. Txalupetako ohola. Soto, upategi.
8. Argazkiko herria.
8. Ugari. Ekarri aditzaren infinitiboa.

Soluzioak

9	1	7	2	8	5	3	6	4
6	8	5	4	9	1	7	2	3
2	4	9	1	6	3	8	7	5
7	5	2	9	1	6	8	4	3
1	9	4	6	7	8	3	5	2
8	3	6	5	2	7	4	9	1
5	6	1	8	7	2	9	3	4
4	7	9	4	6	3	8	1	5
3	8	5	1	8	4	3	6	7

Erraza

7	8	1	6	3	9	5	2	4
3	5	7	4	8	2	9	1	6
9	6	2	1	5	4	3	8	7
5	7	4	2	9	1	6	8	3
1	9	8	7	6	3	4	2	5
6	4	2	5	9	7	8	1	3
2	7	3	6	8	1	9	5	4
4	7	2	3	1	5	8	6	9
8	6	5	4	2	9	7	3	1

Zaila

R	B	N	E	G	C	E	V	E	M	N	F	J	G	I	
Z	H	C	I	R	R	I	N	T	Z	I	M	H	F	S	N
S	R	U	N	Z	U	T	I	K	H	A	I	N	B	A	T
G	F	D	P	K	A	T	S	I	R	U	T	I	F	S	U
U	B	A	C	U	N	G	T	A	L	V	R	R	I	T	R
E	A	V	L	R	R	M	U	A	Z	A	D	T	I	S	I
F	I	T	D	T	U	G	A	I	T	I	I	G	D	U	F
K	T	G	S	T	A	B	T	A	P	I	E	N	C	D	T
A	Z	E	U	L	I	Z	A	E	J	B	L	B	O	H	O
B	E	C	G	R	U	T	S	I	Z	H	H	O	I	U	G
N	N	N	R	G	A	E	U	B	N	G	C	N	P	T	F
O	N	O	J	O	R	S	A	H	G	A	Z	E	U	E	G
B	T	B	L	I	Z	I	O	N	K	O	R	R	I	K	A
E	R	O	T	A	N	B	E	A	L	O	B	R	A	F	R
Z	V	A	Z	O	I	P	Z	S	K	I	V	B	M	M	B

Erraza

Zaila

Nepaleko lurrikaretako batek Everest mugitu du

2015EKO APIRILAREN 25EAN Nepalen gertatu zen lurrikarak, herrialdea hankaz gora jartzeaz gain, lekuz aldatu ditu gauzak. Hala, Txinan lurrikarak aztertzen dituen erakunde baten arabera, Everest hiru zentimetro mugitu da hego-mendebalderantz. Datu hori ezagututa baten batek pentsatuko du horrenbestez GPS koordenatuak aldatu beharko direla, eta



SHRIMP01967-CC BY SA

hala da, baina esan beharra dago Everest, beraren azpian dauden xafla tektonikoen mugimenduaren eraginez, etengabe ari dela mugitzen.

Urtero, munduko mendi altuena lau zentimetro higitzen da ipar-ekialdera. Hortaz, azken hamar urteotan 40 zentimetro mugitu da. Lurrikarak mugimendu hori atzeratu baino ez du egin, hau da, orain urtebete zuen posizioa itzularazi du, gutxi gorabehera.

Baina Everest behetik gora ere mugitzen ari da, hau da, altxatzen. Horizontalean baino mugimendu txikiagoa du; hala ere, urtero 0,3 zentimetro handitzen dela kalkulatu da. Beraz, haren altuera 8.848 metrokoa dela esaten dugunean badakigu zifra ez dela zehatza, hitzartutako garaiera ofiziala baizik. Eta hala ere, txinatarren arabera Everest hori baino lau metro txikiagoa da, tontorrean duen lau metroko izotz geruza kendu behar baitzaio. ■

'Philae' espazio-zunda, lanean berriro

Ekainaren 13an 67P kometan lurrartutako *Philae* zundak jar-duera seinalea eman zuenetik, etenik gabe izan dira harremanak haren eta Lurraren artean. Urte erdi bat isilik eman ondoren, badirudi datozen lau hilabetetan zientzialariak datuak biltzeko moduan izango direla.

ttiki.com/340195
(Frantsesez)

Mikro-robot bigunak

Orain arte garatutako robotak gizakiaren eskalan aritzekoak izan dira, batez ere industrian. Baina industria muga berriak gaititzen ari da. Iowako Unibertsitatean (AEB), esaterako, medikuntzan oso erabilgarria izan daitekeen mikro-garro bat garatzea lortu dute.

ttiki.com/340196
(Euskaraz)

Fukushiman lanak atzeratzen



GERO ETA INFORMAZIO GUTXIAGO hel-tzen zaigu Fukushima zentral nuklearraren egoeraz. Berriki, hainbat kazetariri inguruko menditxo batetik zentrala ikusteko aukera eman diete; aldi berean, TEPCO enpresa kudeatzaileko teknikarien azalpenak jaso dituzte.

Kazetariei emandako informazioaren arabera, zentrolean 10.000 langile-tik gora ari dira garbiketa eta kontrol

lanetan. Sei gunetako batean txapela edo estalkia jarri nahian dabilta; etenik gabe gune horietako bihotzetara ura botatzen dute, baina ez dago garbi norantz joaten den ur hori. Bestalde, aurreikusita zegoen 2017rako gune bateko erregaia ateratzea, baina prozesu hori gutxienez hiru urtez atzeratuko dute. "Ez dugu teknologiarik horretarako", argudiatu du TEPCOk. ■

Egunero 100 gramo txokolate jateak onura ugari

Inglaterra Norfolko hirian 21.000 pertsonarekin azterketa egin ostean, ondorio hauek lortu dituzte: egunero 100 gramo txokolate jateak %11 jaisten du gaitxotasun kardiobaskularrak izateko arriskua, eta %9 ospitaleratze kopurua. Izan ere, mota horretako gaitzen batengatik hiltzeko arriskua %25 gutxitzen du txokolatea hartzeak.

ttiki.com/340197
(Gaztelaniaz)

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Kafea baratzera

MIKATZA DUT KAFAA. Mikatza dut gustuko. Gozotik urruti, gazi puntta eta erre punttua duena. Gatz ttantta bat ere ederki letorkiokeela amets egiten dut, maiz. Izan ere kafea! Taxuzko kafe batek ahosabaiaren azken gapirioaren eta mingainaren atzeko pendizaren artean loratzen duen lehor arantza beste zerk sor dezake? Tabernan zapuzten dira, ia egunero, nire kafe ametsak. Kafea ateratzen didatenero, ia. Ez ganorarik, ez fundamenturik, ez gogorik gabe, basokada bat iturriko ura balitz bezala ateratzen dutenean kafea. Zerbitzatzen duenak jakingo balu; bizitza luzatzen duela jakingo balu; luzatzen duen bizitza horretako eguneroko buruko mina urtzen duela jakingo balu, beste tratu bat emango lioke. Baita kizarakadaxoa egindakoan hondar bilakatzen den kafe eho horri ere.

Kafe hondarrak makina bat gauzatarako berrerabil daitezke. Edozertarako dela ere, hondarra da, hondar organikoa. Lurraren ongarri, alegia. Nitrogenoa, fosforoa, potasioa, sufrea, magnesioa, karea, zer ez du? Simaurrarekin edo luarrarekin nahastuta ederki baliatuko dugu; lurra harrotu eta lehortuko duenez gure baratzetan mesede galanta egingo du. Baita ongarri likidoa egiteko ere: jarri hamar litro uretan libra erdi bat kafe hondar, eta hurrengo egunean, pronto da landareak



ureztatzeko. Ongarri ona bada ere, lurra azidotu egiten duela jakin behar da. Azidozale direnentzat, pagotxa: baratzeko barazkietan tomatea eta piperra, loreetan arrosa, kamelia, hortentsia, azalea, ziklamena, gardenia, errododendroa... Lurrean zabalduz gero, barra-barra erabil daiteke. Kontuz, ordea, loreontzietan. Kafea eman eta kafea eman, lurra kutsatu besterik ez da egiten. Gainsiaren kaltea. Loreontzietan kartzelan bezala bizi dira landareak, bizi baino gehiago iraun, ozta-oztako oreka batean. Orekan. Tamainan, beraz, kafea, eta azidozale amorratu horietako landare-

ren bat ez bada bertan, onena batere ez.

Baratzean, intsektuak ere uxatzen ditu: barraskiloak, bareak, inurriak... Baita katuak ere, agidan.

Bere bakardadean, perretxikoak hazteko oinarri egokia da: jarri toki ilun batean, inokulatu perretxikoaren mizelioa eta ez utzi lehortzen. Konturatzerako mahaian zara.

Ehotzeko kafea prestatzeko lanetan kentzen zaion azala eta hondar hondakina kontuan hartuta, urtero 2.000 milioi tona materia organiko sortzen omen da kafezaleon kontura. Zerbait egin beharko, ezta? ■



TXAKOLINA, SAGARDO NATURALA ETA FRUTAK

Trazaola Baserria, 36 - Iurreta (Bizkaia)
© 946 816 044 - 685 716 044 - isasitxakolina@hotmail.com



Irakurleek zer diote?

ESKERRIK ASKO liburua dedikatzegatik. Asko gustatu zait azkeneko esaldia lurra eta amaren konparaketa. Orain bakarrik geratzen zait poliki irakurri eta asko ikastea. Muxuak.

Amaia

ESKER MILA Jakoba Errekondo ortziralean Iruritan emaniko solasal-diagatik. Ze gustura egon ginen. A, eta bidenabar, animatu nahi ditut hau irakurtzen dutenei zure liburua erostera. Arras interesgarria. Zorionak!

Pol Mendiburu

OSO GAUZA interesgarriak dauzka (esparru askotakoak), atsegina, polita eta informazioa erraz atzematen da. Kontuan izanda dagoen informazio ugari eta anitza, hori mirari bat da ia-ia.

Ana Eizagirre

EDO GOIZ BATEAN, espero gabe... zure mahai gainean agertzen da liburu polit hau!!!

Laura Andresena Zubigarai

AZKENEAN, bertako baratza ezagutzen duen liburua! Hasi berrientzat bezela, betiko baratzazaleentzat ere erabilgarria. Bikaina!

Jone

**Bidali liburuaren zure iruzkina (mandio@zerain.eus).
Ahalik eta gehien argitaratuko ditugu hemen.**

Bizi Baratzea liburuaz Errekondok Hernaniko Karabelekon emandako hitzaldiaren bideoa ikusgai www.argia.eus/multimedia helbidean.



Eskuratu liburua sinaturik

Bizi Baratzea ARGIAN erosiz gero, Jakoba Errekondok eskuz sinatutako hitz batzuekin jaso dezakezu liburua.

Egileak herriz herri ematen dituen hitzaldietan ere (ikus ondoko zutabearen non-noiz) baduzu sinaturik eskuratzeko aukera.

Eskaerak

Salneurria: 23 €
Harpidedunentzat: 19,50 €

☎ 943 371545
www.argia.eus/denda
denda@argia.eus

Zure saltokian liburua salgai jartzeko, deitu.



@bizibaratzea · Informazio gehiago: www.argia.eus/bizi-baratzea

AURKEZPEN HITZALDIAK

herriz herri

Jakoba Errekondok baratzeari buruzko bere jakintza herritarrekin partekatuko du Euskal Herri osoan.

Hauek dira ondorengo hitzorduek:

Uztailak 4 Antzuola

Euskadi Irratiko Landaberri irratsaioarekin batera, goizeko 10:00etan. Lizarraga auzoko San Martzial ermitan.

Uztailak 9 Ainhiza-Monjolose

Euskal Herriko Laborantza Ganbaran, 21:00etan.

Uztailak 19 Subilla Gasteiz

Frackanpadako azken eguneko azoka ekologikoan, eguerdian (ordu zehatza zehazteke).

Irailak 23 Algorta

Egizul elkarteak antolatutako Uribe Kostako Irakurzaleen Txokoaren barruan. 19:30ean, lekua erabakitzeke (eguraldiaren arabera).

ANTOLATU ZURE HERRIAN

Jar zaitetz gurekin harremanetan eta behar duzun informazioa eskuratu duzu.

sustapena@argia.com
☎ 943 371 545

Basilio Lacort, Nafarroa berriaren bila eskumikatua

BERA (NAFARROA), 1851KO EKAINAREN 15A. Basilio Lacort Larralde militar eta kazetaria jaio zen. Ama bertakoa zuen; aita Huescako zen jaiotzez, eta guardia zibila bizibidez. 14 urte zituela aitaren lanbideari ekin zion eta Elizondon hasi zen lanean. Berehala monarkiaren aurkako konspirazioetan nahastu zen, eta jarduera horrek kartzela behin baino gehiagotan zapaltzea ekarri zion nerabeari.

1870ean Juana Goñi Lizeagarekin ezkondu zen, eta Amadeo Saboiakoa buru zuen Espainiako gobernu errepublikarrari leial izateko zina eginda, azken gerra karlistan parte hartu zuen: Dantxarineako zubian, Astigarragan, Allon eta Arellanon borrokatu zen, besteak beste. 25 urterekin, hainbat ohore-domina eta armadako teniente gradua lortuta, Kubako Gerra Txikira bidali zuten, baina gaixotasun bat medio, urtebete eskas eta gero itzuli zen. 1883an Badajozeko altxaldi errepublikazalean parte hartu zuen. Jazarraldiaren porrotak erbestera eramango zuen; Portugalera lehenik, Frantziara gero eta, azkenik, Aljeriara.

1887ko uztailan, amnistia eta, beraz, itzultzeko baimena eskuratuta, Madril joan zen lehenik, Ruiz Zorrillaren *El País* egunkarian lan egiteko, eta ondoren Iruñean kokatu zen.

1898. urtean *El Porvenir Navarro* astekaria sortu zuen. Hasieratik nabarmena zen kleroaren eta karlismoaren aurkako jarrera, baina irakurleek gogo onez hartu zuten nonbait, hasierako 500 aleko argitaraldia bikoiztu behar izan baitzuten berehala. Hurrengo urtean, Iruñeko gotzain Antonio Ruiz-Cabalek agerkaria irakurtzea debekatu zuen, bekatu larria, heresia ia, omen zelako. Urte berean, 1899ko azaroaren 14an, José López Mendoza izendatu zuten hiriko gotzain eta bere aurrekoa baino are zorrotzagoa izan zen Lacorten hedabidearekin. Lacort bera *nominatium* eskumikatzeaz gain, *El Porvenir Navarro* idazten, sustatzen, editatzen, saltzen eta irakurtzen zuen orori zabaldu zion eskumikua. Erabaki mundutarrez, aldiz, Genaro Pérez



Basilio Lacort Larralde (1851-1908).

Moso gobernadore zibila arduratu zen; abenduaren 8an astekaria itxiarazi zuen.

Gobernu Zibilak berehala beste aldizkari bat zabaltzeko baimena eman zion Lacorti, ordea. Mende berriarekin batera abiatu zen *La Nueva Navarra* astekaria. Eta 1900. urtea amaitzeaz zela haren arerioa argitaratu zen lehenengoz: Benito Valenciak zuzendutako *La Vieja Navarra* integrista. Bi hedabideen arteko eztabaida eta liskarrak larritu zirenean, gotzainaren erabakia ez zen batere originala izan: Basilio Lacort bigarren ez eskumikatu zuen.

1908ko uztailaren 5ean hil zen. Diotenez, hiltzerian zela López Mendozaren bisita jaso zuen, iraganaz damu zedin eskatuz. Lacortek ezetz esan omen zion.

1931n, lehen udal errepublikarrak beratarren izena ipini zion egun San Fermin kalea denari, baina 1936an frankistek, kalearen izena aldatzeaz gain, Lacorten hilobia txikitu zuten.

1970eko hamarkadan Jose Joaquín Arazuri mediku eta historialari iruindarrak hiriko kaleetako 1.168 argazki zahar bildu zituen. Horietako batean Corpus Christiko prozesioa ageri da San Anton kalean, eta apaiza Guztiz Santuaren irudia auto batean sartzen ari da; irudi sakratuak ondo estalita eta babestuta igaro behar baitzuen Basilio Lacort bekatiaren etxe paretik. ■

Arrastoak

Giotto: egunez margotu, gauez zizelatu

GIOTTO DI BONDONE (1267-1337), Giotto izen hutsez ezaguna, Berpizkundeko artista nagusietakoa izan zen. Itxuraz, bere autoerretratua han eta hemen sartzeko joera zuen, baina adituek ez dute haren freskoetan artistaren aurpegia identifikatu. Garaiko kroniken arabera, Giotto itsusia izan arren, emakume eder bat maitemintzea lortu zuen eta seme-alaba mordoa izan zuen, aita bezain itsusiak, Dante Alighieriri jaramon eginez gero behintzat. Kopuru zehatza ez dakigu, hiltzean sei bizirik zeudela besterik ez.

Behin, Florentziako noble bat Giottoren tailerrera joan zen enkargu bat egitera. Haur andanak harrera egin zionean, “mais, zein dira haur hauek guztiak?” galdetu omen zion margolariari. “Nire seme-alabak dira, jauna”, erantzun zuen. “Guzti-guztiak? Ezinezkoa dirudi”. Orduan, Giottok hone-laxe esan zion: “Jauna, nik egunez margotu egiten dut, eta gauez zizelatu”. ■



Giottoren Kristo hilari erosta freskoaren xehetasuna, Scrovegni kaperan (Padua).

ALFERRIKAKO AZPIEGITURAK

La Engaña tunela: burdinbiderik gabeko trenbidea

Alferrikako tren azpiegiturak ez dira atzo goizeko kontua, eta Espainiako trenbide sarea abandonatutako zatiz josita dago. Horien adibiderik larrienetakoa Euskal Herritik gertu daukagu, Kantabriako Pas haranean. Kantauriar mendilerroa alderik alde zeharkatzen duen La Engaña tunela eraikitzeke 17 urte eta milaka langile behar izan ziren, tartean preso politikoak. Guztiak ere alfer- alferrik, sekula ez baita bertatik trenik igaro.

Testua eta argazkiak:

| JOXE ROJAS |

PAS HARANEKO BIHOTZEAN, Kantabrian, Vega de Pas herria aurki dezakegu, ikuskizun txundigarria osatzen duten mendi malkartsuz inguratuta. Herritik kilometro gutxira, 1.153 metroko horma berde eta grisa nabarmentzen da: Estacas de Trueba mendatea da, Kantabria eta Burgosko lurraldeak banatzen dituen muga naturala.

Handik Burgosera doan errepidea hartuta, mamu erraldoi bat agertuko zaigu bidearen eskumatara, bailaren beste aldean: hiru solairuko eraikin horixka, mendiari atxikitako porlanezko balkoi baten gainean eraikita. 50 urtean trenik ikusi ez duen Yerako tren geltokiaren hondarrak dira.





Ezker-eskuin eta goitik behera: Yerako tren geltokia, La Engañaiko tuneleko barrunbea, ostatuko geletako bat eta ostatuaren hondarrak Kantabriako mendien paisaje berdean ezkutatuta.

Denbora izanez gero, merezi du autoa geltoki ondoan utzi eta bertatik abiatzen den bideari oinez jarraitzea. Lau tunel txiki eta 40 bat minutu pasatuta, barrenetik hats izoztu eta umela darion zulozarrera iritsiko gara. Harri landuzko kartel batek harro-harro iragartzen duenez, La Engaña tunelean gaude, Kantabria eta Burgos mendi azpitik lotzen dituen 6.976 metroko zuloan.

Santanderretik Mediterraneora

Yerako geltokia eta tunelaren beste aldean, Pedrosa de Valdeporres herrian dagoena lotzen dituen trenbidea Santander (Kantabria) eta Sagunto (Valentzia) portuak lotu behar zituen Santander-Mediterraneo trenbide-ardatz erraldoiaren zati bat besterik ez da.

Hainbat gorabeheraren ondoren, 1925ean hasi ziren Santander-Mediterraneo trenbidea eraikitzeako obrak,

Primo de Rivera diktadorearen agintean, Bizkaiko Golkoa eta Mediterraneoaren arteko komertzioa bizkortzeko asmoz.

Errepublikak ere aurrera jarraitu zuen lanekin, baina zatirik konplexueneko lanak atzeratuz joan ziren aurrekontua tarteko, Gerra Zibilak proiektu osoa erabat gerarazi zuen arte. Gerra amaituta, Francoren diktadurak Burgos eta Kantabria lotze-

ko lanari ekin zion. 6.976 metroko tunela erregimenaren propaganda tresna izugarria izan zitekeen, baita Santanderri eman nahi zitzaion “Gaztelako portu” izaera finkatzeko bide aparta ere.

Presoen lana

Lanak 1941ean hasi ziren, diktadurak Ferrocarriles y Construcciones ABC enpresarentzako lan egitera behartutako preso errepublikarren eskutik. Andaluzia, Extremadura eta Cuenca-tik bidalitako 560 preso jarri zituzten lanean, tunela Burgos aldetik irekitzen. Baina langileen kualifikazio ezak, bitarteko eskasek eta muturreko baldintza fisikoei infernua bilakatu zuten proiektua. Aurreikuspenen arabera 52 hilabeteko lana zena 19 urtez luzatu zen: 17 tunela bera egiteko, eta beste bi ibilbideko bi geltokiak eraiki eta burdinbiderako lurberdinketa osatzeko.

Gerra amaituta, Francoren diktadurak Burgos eta Kantabria lotzeko lanari ekin zion. 6.976 metroko tunela erregimenaren propaganda tresna izugarria izan zitekeen


1945ean Francok indultua eman zien presoek, eta horrek gauzak okertu zituen enpresarentzat. Lanen erritmo motelak oso kalteturik zituen ABCren aurrekontuak, eta langile libreak kontratatu behar izateak estu eta larri utzi zuen. 1950erako 500 metro baino ez zituzten zabalik, eta lanak erabat geldituta likidezia faltagatik. Diktadurak Portoles y Cia enpresari eskualdatu zion enkargua. Enpresa berriak estatu osoko langileak kontratatu eta biziki azkartu zuen lana: eguneko metro erdi zula-tzetik, hiru metrora pasatu zen.

Bertan behera

Hala ere, bederatzi urte pasatu ziren tunela hegoaldeetik eta iparraldeetik zulatzen ari ziren bi lan taldeek topo egin arte, 1959ko apirilaren 26an. Erregimenak azkar egin nahi zuen inaugurazioa, eta maiatzaren 1erako iragarri zuen. Bezperan, hala ere, sabaitik jausitako harlauza batek langile bat hil zuen, eta astebate atzeratu zuten ekitaldia, maiatzaren 8ra arte.

Harrezkero, zurrumurrua baino gehiago zen trenbidea bertan behera geratuko zela. Ekitaldiko otorduan, Portoles berak zein Santander eta Burgoseko gobernadore zibilek estututa, trenbideetako zuzendari nagusiak, Lorenzo Ochandok, Santander-Mediterraneo linea erabat osorik gauzatu zela hitz eman zuen jendaurrean, “nazioaren egoera ekonomikoa dela eta, denok nahi genukeena baino astiroago bada ere”.

Maiatza amaierarako, Francoren gobernuak hartua zuen linea bertan behera uzteko erabakia, arrazoi ekonomikoak tarteko. 31 kilometro baino ez ziren falta Yerako geltokia Saron herriarekin lotu eta 700 kilo-



Espainiako trenbide sarearen 1941eko mapan argi ikusten da zer punturaino garatu zen Sagunto eta Santander lotzeko linea. Zatirik konplexuena, La Engaña, osatzeko ia 20 urte eman ondoren, linea osoa bertan behera uztea erabaki zuen Francoren gobernuak, Yeratik Santanderreko lineara 30 kilometro eskas falta zirela.

metroko linea ixteko. Iparralderantz, Santanderreraino, luzatzen zen zatia eginda zegoen jadanik, baita hegoaldeetik Dosante (Burgos) eta Calatayud (Zaragoza) lotzen zituena ere, handik Saguntorekin lotzeko.

Tunela amaitu arren, La Engaña inguruko lanak 1961era arte luzatu ziren. Ordurako jakina zen bertatik ez zela trenik pasatuko, eta horregatik ez zen ez burdinbiderik, ez seinalerik instalatu. Hantxe geratu ziren, alfer-alferrik, bi geltoki ederrak, tunel handia eta lau txikiagoak, langileen herrixkak eta lanean hildakoen bizitzak. Harri jausiek, txarto kontrolatutako ezteandek eta muturreko bizi baldintzek 16 langile akabatu zituen Portoles y Ciaren garaian. Presoak lanean zebiltzaneko datu zehatzik ez dago. Ezta lanak amaitu eta urteetara birikietako gaitzek jota hildakoei buruz ere. Tunela bera ere hiltzen hasia dela esan daiteke: 1999an, kupularen zati handi bat behera jausi zen Burgoseko sarreratik hurbil, eta harez geroztik beste hainbat zati ere eroriz joan dira.

Etorkizuna

1980ko hamarkadan, Espainiako gobernu sozialistak erabat deuseztu zuen Santander-Mediterraneo linea osoa, artean martxan zeuden tar-teak ere. Tunelean zehar errepidea

egiteko aukera ere guztiz baztertu da, gehiegizko inbertsioa litzatekeela oso trafiko urria eta bide nagusiekin lotzeko aukerarik ez duen tarte txiki baterako.

Azken hileotan, Kantabriako gobernuak iragarri du turismo gunea eraiki nahi duela Yerako geltokiaren inguruan: teleferiko ikusgarri bat, geltokitik Estacas de Trueba mendatera igoko litzatekeena eta handik, harana zintzilika zeharkatuz, parean dagoen Castro Valnera gailurrera eramango lukeena. Denborak esango du, baina 50 urte pasako eskarmentuaren ondoren, bertako jendea eszeptiko samarra da inguru hura berreskuratzeko enegarren promesaren aurrean. ■

Kantabriako Gobernuak iragarri du turismo gunea eraiki nahi duela Yerako geltoki inguruan, teleferiko eta guzti. 50 urte pasako eskarmentuaren ondoren, bertako jendea eszeptiko samarra da

MARCOS
okindegia

Benetako aitzinako ogia

☎ 943 450 966
Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)

Arabian euskara biziberritzen

Manex Agirre bertsolari eta euskara teknikariaren ikerketaren arabera, hizkuntzaren normalizazioaren bidean, aisialdiko ekintzen artean, ez dago bertso eskola bezalakorik.

| MIEL A. ELUSTONDO |



GOIENA.EUS

Manex Agirrek bertso eskoletako gaztearen profila deskribatu digu: “Gaztea da. Posible da hizkuntza-hautua finkatzen aritzea une honetan. Badu barruan gehiegi erabiltzen ez duen hizkuntza horrekiko atxikimendu bat, berea dela sentitzen du, baina kosta egiten zaio mingaina dantzan jartzea...”. Argazkian, aurtengo Eskolarteko Txapelketa.

ESAN IZAN DENEZ, Arabako erdarazko ozeanoan bertso eskolek egiteko inportantea dute euskara biziberritzeko prozesuan. Manex Agirrek begirada zorroztu eta gehiago jakin nahi izan du, bere buruari galdezka: “Egunerokoan, zertan eragiten dute, benetan, bertso eskolek? Zein da haien ageriko eragina, gazteek euskararekiko duten harremanean?”. Erantzun bila osatu du *Arabako bertso eskoletako gazteak eta euskararekiko atxikimendua* ikerketa, Hiznet 2013-14 Sakontze egitasmoaren barruan burututako lana.

Manex Agirrek aspaldi ezagutzen du barru-barrutik bertso mugimendua. Beraren iritziko, euskararen biziberritze lanetan leku berezia izan duen kolektibo dinamiko eta

saiatua da, eta aletxoa jartzen asmatu du euskararen erabilerak Arabian duen goranzko joeran. Lanaren egileari jarraiki, “eta eragin hori argiago ikusten da gazteen kasuan”, hau da, aztergai izan duen adin tartean, 14-20 urtekoetan, hain zuzen.

Ez bertsozaleak bertso eskolan

Agirreraren arabera, ikerketa gauzatu zuen garaian –erran nahi baita, 2013-2014 ikasturtearen amaieran–, hamazazpi bertso eskola ziren Arabian. Horietarik bakarra legoke euskarak indar handia duen eremu soziolinguistikoan –Aramaion–, eta honenbestez, erdalgunean leudeke gainerako hamaseiak. Hamazazpi bertso eskola horietan 37 talde daude eta horietarik zazpi ziren Agirreraren ikergai ziren adin tarteko

kideak zituztenak. Manex Agirrek esango duena: “Zazpi talde, 40-50 bat lagun guztira. Arabarrak, gazteak, eta euskal hiztunak. Neska-mutil talde ederra. Baina, denek dute harreman bera euskararekin? Bertso eskolan izena ematen duten unean, hiztun-hautua egina al dute denek? Euskararekiko etorkizunean izan nahi luketen harremana zehaztuta al dute denek? Ba al dute inguruan dituzten bi hizkuntzen arteko desorekaren kontzientziarik? Sentitzen al dute erantzukizunik, euskararen biziberritze-prozesuari dago-kionean?”. Galderak eginez batera erantzuten ditu haiek ikerketa honen egileak: Arabako erdalguneko bertso eskoletako gazteak dira “aktiboak, sormenerako zaletasuna dutenak. Euskararekiko nolabaiteko

atxikimendua badutenak, baina horretan gehiegi pentsatu ez dutenak. Bertso eskolan izena eman dutenak erakargarri egin zaielako, ondo pasatzen dutelako... eta ez bertsozaleak direlako”.

Bertso eskola, zerutik jakina da, bertsoak kantatzeko eta bertsoan egiteko lekua da –gutxi-asko, bederen–, baina Manex Agirreri jarraikiz, erdalgunean esanahi propioa luke: “Oionen bagaude, euskararen bizileku ere bada bertso eskola. Funtzio gehigarri bat betetzen du; gehigarri izan arren, funtsezkoa ere baden funtzioa”. Horretan, Agirrek bat egingo du Juan Mari Juaristiren ikusmoldearekin: “Kontua ez da bertso eskolatik bertsolariak ateratzea, hori helburuak gehiegi murriztea litzateke (...). Euskara, bertsoan aritzeko ez ezik, harreman-hizkuntza gisa erabiltzeko indartu behar da lehen-lehenik ingurune erdalduna dugun eskoletan. Ezin da ahaztu guretzat bertsolaritzak betetzen duen euskalduntze funtzioa”. Ezinago garbi esana. Euskalduntze funtzioa du bertsolaritzak Arabako erdalgunean. Eta iritzi berean joko du mailua Oihane Perek: “Erakargarri bakarra ez da bertsoa, huts- hutsen. Erdalgunean ez da bertsoa batzen dituen bakarra: lagunak, beste ezaugarri batzuk... Gure umek esaten dute: bertso eskolan dagoen jendea bezalakorik inon ez dut ezagutu, ez nire inguruan, ez nire eskolan...”.

Atxikimenduaren gorabeherak

Agirrek bertso eskolara sartu zen gaztearen argazkia egin digu eta, haren arabera, gaztelania du ohiko hizkuntza. Hala ere, bertso eskolan euskaraz egingo du. “Eta, gainera, nahiko modu oharkabea egingo du aldaketa hori”. Beste toles bat ere badu auzi honek, Agirreren intereseke, gazteez ari baita bera. “Gaztea da. Posible da hizkuntza-hautua finkatzen aritzea une hone-

tan (...). Badu barruan gehiegi erabiltzen ez duen hizkuntza horrekin atxikimendu bat, berea dela sentitzen du, baina kosta egiten zaio mingaina dantzan jartzea...”. Eta hemen dugu Agirreren ikerketak xede duen atala, zeina baita Arabako bertso eskoletako gazteek duten euskararekiko atxikimendua.

Erdalgunean bertso eskolara jotzen duten gazteak gaztelaniaz mintzo sartu ohi dira gelara. Barruan, euskarara jo ohi dute

Dena dela, hasteko, euskaraz gehiago egiten dute bertso eskolara doazenek. Hala jaso du, behintzat, Agirrek Legutioko eta Zalduondoko bertso eskoletan. Nonbait, erdalgunean bertso eskolara jotzen duten gazteak gaztelaniaz mintzo sartu ohi dira gelara. Barruan, euskarara jo ohi dute; batik bat aldeztu aurretik elkar ezagutzen ez duten kasuan. “Harreman berri hori euskaraz izango da. Zaila da ehuneko ehun horrela izan-

“Bertso eskolara doan gaztea ez da, ikasturtearen amaieran, euskal hiztun aktibo bihurtzen, automatikoki”

go dela bermatzea, baina harremana bera egiteko bertsoa izan bada, euskara erantsita dakar, lapatuta”. Eta euskaraz egiten ez ezik, euskara bera hobetzen ere lagundu ohi die bertso eskolak ikasleei. Bertsolariak esango digunez, Arabako erdalgunean bertso eskolek egiteko garrantzizkoa

dute euskara biziberritzen, zuzeneko eragina, baina ez erabatekoa: “Bertso eskolara doan gaztea ez da, ikasturtearen amaieran, euskal hiztun aktibo bihurtzen, automatikoki. Bertso eskolak ez du bermatzen bertako partaideek ahal duten guztietan egingo dutenik euskaraz”. Alabaina, “Gazteak, oro har hizkuntzarekiko, eta bereziki euskararekiko, aurretik zuen harremana aldatzen du bertso eskolak. Bi arrazoiengatik gertatzen da hori: bertsoak, bertso eskolako lan-tresnak, horretarako aukera erakargarriak ematen dituelako; eta bertso eskola bera, espazio gisa, euskararekiko harremana lantzeko gune berezia delako. Euskararekiko atxikimendu pobrea, harreman behartua, erlazio urruna duen gazteak nekez egingo du erabilerarako jauzia. Bertsoak harreman hori aldatzen laguntzen du”.

Eta, hain zuzen, bertso eskolara doazen ikasleen harreman horretaz are gehiago esango du Agirrek: “Arabako bereizgarri gisa ere har genezake, bertsoak gazteen arteko euskarazko harremanak saretzeko erakutsi duen gaitasuna. Bertsoa, zerbait bada, modu kolektiboan ulertzen den espresio-bide bat da Araban. Bertsoak bertsokideak esan nahi du, lagunak, harreman estuak. Euskaraz erlazionatzea beste erremediorik ez duen jende-talde espezial bat”. Eta, hala eta guztiz ere, hori ez da betibetiko egia, eta ez da izango ere. “Atxikimenduak gora-beherak izan ditzake: bizitzan gauza asko gertatzen dira, harremanak aldatu, gu aldatu”, baina Manex Agirrek ez du zalantzarik, haren ikerlaneko azken hitzetan esan digu: “Zaila dago aurkitzen, erdalgunekeo aisialdi eskaintzan, euskararen normalizazioaren ikuspegitik, bertso eskola batek baino arrakastarako aukera handiagoa eman dezakeen eskaintza zehatzik, gaur egun. Ez da uste harro bat. Praktikak erakusten du”. ■

Babeslea: Hernaniko Udala



ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA



Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

© 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com

Euskal Herriko Koop57 sortu dute

Erakunde berriak finantza tresna giltzarria izan nahi du kooperatiba sareetan, maileguak emateko eta jasotzeko garaian bestelako filosofia batean oinarrituta.

| URKO APAOLAZA AVILA |

OSOTASUNEZ ekin dio Euskal Herriko Koop57k bere ibilbidea-ri, Kataluniako Coop57ko kontseilu errektoreak erakunde gisa onartu baitu, ekainaren 20an Ondarroan egindako ekitaldian.

Bezperan Coop57k beste lurraldeetan dituen 40 bat ordezkariaren arteko topaketa izan zen. Hain justu, egun horretan 20 urte bete zituen Kataluniako Coop57k, 1995ean Bruguera argitaletxetik kaleratutako langileen ekimenez sortua. Horrek guztiak esangura berezia eman zion Ondarroako topaketari.

Bi urte lanean

Euskal Herriko Koop57ko kideek bi urte daramatzate lanean finantza tresna alternatibo bat izateko egitasmoa aurrera ateratzen. Orain arte, mailegu eskaerak jaso, datuak bildu eta horiek kudeatzen zituzten, baina Kataluniako Coop57ko organoen onespena behar izaten zuten.

Gaurtik aurrera Euskal Herriko erakundeak bere batzorde soziala eta teknikoa izango ditu, bideragarritasun planak egin eta erabakiak autonomia osoz hartzeko. Liher Gonzalez Koop57ko kideak ARGIAri azaldu dionez, Kataluniako erakundea plataforma egokia izan da “batez ere denbora aurrezteko”. Normalean urte askoko lana izan behar lukeena, urte eta erdian egin ahal izan dute, jadanik gorpuztuta dagoen Kataluniako proiektuan oinarrituta.

“Kataluniako Coop57ren boka- zioa ez da inoiz izan herrialde hartatik kanpora irtetea, ezagutzen ez duten eremua baita –dio Gonzalez- zek-. Iniziatibak tokian tokiko eragi- leen esku egon behar du”.



Koop57k oraingoz 15 zerbitzu bazkide ditu eta 50 bazkide laguntzaile. Hainbat proiekturi 700.000 euro mailegatu dizkie eta bazkide laguntzaileek 200.000 euro aurreztu dituzte.

Zein helburu ditu?

Finantza kooperatibako kideak gelditu gabe ari dira lanean euren proiektua azaltzen: “Gauza konplexua da, filosofia aldaketa handia dakar eta jende askori kostatzen zaio ulertzea” dio Gonzalezek. Baina helburuak oso garbi dituzte: kooperatiba sareetan finantza tresna giltzarria izan nahi dute.

Esparru horretatik haragoko eragileekin ere ari dira elkarlanean. Hala, berrikitan Udalbiltzarekin hitzarmena sinatu dute, udalerrietan energia berriztagarrien inguruko proiektuak martxan jartzeko. Zerbitzu publikoari izaera kooperatibo eta komunitarioa ematea da horren gakoa: gestioa publikoa izango da, baina kontrola komunitatearen gain egongo da.

Nola funtzionatzen du?

Koop57 “instrumentu parabankarioa” da Gonzalezek hitzetan. Ez

du Fiare banku etikoaren moduan banku-fitxarekin operatzen, ez dauka aukerarik kutxazainak eta bestelako finantza produktuak edukitzeko, baina aldi berean ez ditu Espainiako Bankuak ezarritako araudi eta interes-tipoak kon- tuan eduki behar.

Batetik, bazkide laguntzaileak ditu, aurrezten duten pertsonak. Urtero, asanbladan adostutako zenbateko bat jaso dezakete horren truke. Bestetik, zerbitzu bazkideak daude, haiek aurreztu dezakete, baina maileguak jaso ere bai; kooperatibak, GKEak eta halakoak izan ohi dira. Dena den, ez dira soilik eragile kolektiboak finantzatzeko, autonomo- en beharrak ere kontuan eduki- tzen dira helburu soziala badute: “Zergatik ez lagundu kontsumo talde bat hornitzen duen baserritarrak?”.

Mailegua ematen da, ez abalatzen duenaren aberastasunaren arabera, abal mankomunatu pertsonalen bidez baizik. “Demagun 50.000 euroko mailegua behar duzula; 1.000 euro abalatzeko prest dauden 50 pertsona beharko zenituzke”, dio Koop57ko kideak. Hala, mailegua eskatzen duen horrek, hasi aurretik jada baditu babesleak proiektuan sinetsi eta hori zabaltzeko prest daudenak.

Mailegua ordaindu ezin den kasuetan, ordura arte amortizatutakoa deskontatzen da eta abalatzen dutenek gainerakoa ordaindu beharko lukete, baina interesik eta halakorik gabe. “Arriskua txikiagoa da eta ez duzu egon behar pentsatzen zure amaren edo aitonaren etxea kenduko dizutela”. ■

Orain erabakiak

Estadioak bete ez ziren arren, milaka lagunek parte hartu zuten ekainaren 21ean Euskal Herriko hiriburuetan Gure Esku Dagok antolatutako oihalkate eta festa erraldoietan. Erabakitzeko eskubidearen aldeko herri mugimenduak aro berri bati ekingo diola iragarri zuen, “anbizioz eta determinazioz”.

| URKO APAOLAZA AVILA |

BESTE BEHIN, milaka lagun bildu ditu Gure Esku Dago dinamika erabakitzeko eskubidearen alde. Euskal Herriko bost hiriburutako plaza, kale eta estadioetan jende ugari bildu zen, eta irudi ikusgarriez gozatu ahal izan zuten herritarrek, ekimenaren sinbolo izan diren oihalkoloretsuak eskutan hartuta.

Aurtengo ekitaldi nagusiak bazituen osagaiak arrakastatsua izateko. Alde batetik, iazko giza katearen olatuetatik sortutako ilusioak mugimenduari emandako indarra. Gihar hori herri eta auzo ugaritan sumatu da: dagoeneko 230 batzorde baino gehiago ditu ekimenak Euskal Herriko lurralde guztietan. Horren erakusle da Gure Esku Dagok Ipar Euskal Herrian ere egin dituela sustaiak, Baionan ikusi dugun moduan. Lurraldetasunaren ikuspuntutik ere jauzi kualitatiboa bada hori.

Bestetik, alderdi politiko, erakunde eta eragile ugariren babes esplizitua jaso zuen ekitaldiak. Hala, EAJk eta EH Bilduk, norbere aldetik, herritarrek “animatu” zituzten ekitaldietan parte hartzeko. Bi aste lehenago Gure Esku Dagok gizarte, kultura, politika eta kirol munduko 80 pertsona ezagun bildu zituen helburu berarekin. Euskal telebista publikoak ekimena iragartzeko eta jarraitzeko aurreko jarritako baliabideak ere nabarmentzeko modukoak izan dira.

Goizeko oihalkate eta kalejiretan giro ederra nagusitu zen, kaleak jende murrizketaren iazko alaitasun berarekin. Arratsaldean estadioak eta zezen plazak betetzea zen helburu, baina ekimenak ez zuen hori lortu. Iruñeko zezen plazan, esaterako, eguzkipeko harmailak nahiko hutsik geratu ziren eta San Mamesen



Irudi berria, logotipo berria
Ekin izaten jarraitzeko aldatu gara

Ekin S.Coop.
Arriagane Industrialdea (Boroa auzoa)
48340 AMOREBIETA (Bizkaia)

+ www.ekin.es






maizpide

Euskara, bizi

Elosegi 40 bis - 20210 Lazkao
 lazkao@maizpide.eus
 Tel: 943 88 92 31
 www.maizpide.eus

ATXONDO

Atxondoko Udala



© 94 682 1001
 www.atxondo.net

AHT gelditu!

NUROL PRESIOA
 BUKAL HERRIA

GED



GED



DANI BLANCO

Bilbo, Donostia eta Baionako irudiak. Jendeak josi eta apaindutako oihal zati koloretsuak izan dira Gure Esku Dagok ekainaren 21ean egindako ekitaldietako sinbolo nagusia. Aurten gainera, Euskal Herriko zazpi lurraldeak estali ditu ekimenak.

ere hutsune oso handiak ikus zitezkeen. Antolakuntzak berak ohar bidez onartu zuen “aulki hutsak parez pare” jarri zituela arratsaldeak: “Aulki huts horiek oraindik ere batu ez ditugun herritarrei egiten diegun eskaintza dira. Umiltasunez, determinazioz eta borondatez. Sinesten dugulako badagoela oraindik herri honetan aulki horien jaberik”.

Ekimeneko arduradunek datozen egunetan aztertu beharko dute zerk egin duen huts harmailak ez betetzeko, baina bistakoa dirudi eki-

menak beste pizgarri bat behar duela erabakitzeko eskubidearen aldarriarekin aurrerapausoak emateko. Hain justu, Gure Esku Dagok mezu nagusian iragarri du hemendik aurrera “erabakiaren aroa” hasiko duela, “fase definitiboa”. Horri lotuta egon litezke, adibidez, datorren urtean hainbat herritan egingo diren herri galdeketak. Lehenik Goierriko 21 udalerriek jakinarazi zuten kontsulta bateratua egingo zutela; joan den astean berriz, Dima, Ispaster eta Hernani ghitu

zitzaizkien. Olatu horrek jarraitzen badu, laster ikusiko dugu noraino eragiteko gaitasuna izango duen.

Nolanahi ere, erabaki eskubidea egunero eskala txikian praktikara eramateak jendea aktibatzen eta arazoei aurre egiteko ere balio lezake, balio izan duen moduan LOMCeri desobeditzeko garaian edo laborantza ganbarak sortzerakoan. Izan ere, zertarako nahi dugu erabaki, herri honetan bizi ditugun gatazka anitzei irtenbidea emateko ez bada? ■



Ezkio-Itsasoko
UDALA

ANDUAGA ETXEA
20709 Ezkio-Itsaso
☎ 943 721 303
udala@ezkio-itsaso.eus
www.ezkio-itsaso.net



GURE
ESKU
DAGO



IÑAKIBEREZIARTUA
Enbalajeak • Biltegiatzea eta Logistika • Zerra eta eraikuntza

25 urte baino gehiago paketatze
industrialaren sektorean

Jauregi auzoa, 75 • HERNANI • (Gipuzkoa) • ☎ 943 552 828
www.inakibereziartua.com • mjm@inakibereziartua.com

Beriain, Tiebas eta Elortz bailaran ere D eredua nahi dute

NAFARROAKO zonalde ez euskaldunetan daude, eta bi eskaera dituzte: euskarazko irakaskuntza herrian bertan izatea, eta hori lortu bitartean, jantokia eta garraioa ordaintzea.

Ez dira lehenak eskakizunetan. Artaxoako, Mendigorriako eta Larragako gurasoen bidea hartu dute Beriain, Tiebas eta Elortz bailarako gurasoek. Irakaskuntza publi-

koan ezin dituzte haurrak D ereduari matrikulatu eskaintzarik ez dagoelako, eta ondorioz, Iruñeko Hegoalde ikastolara eta Iturrama ikastetxera eramaten dituzte haurrak. Jantokia eta garraioa poltsikotik ordaintzen dituzte.

Nafarroako Gobernuak erregistroan 30 eskaera egin dituzte, 60tik gora umeren izenean.

SORTZEN ELKARTEA



Tiebas, Beriain eta Imarkoango gurasoek elkarretaratzea egin zuten Gobernuak erregistroan eskaera egin zuten egunean.

Euskararekin zer?



MAIATZA-EKAINEN *Jakin* aldizkarian euskarak hartu ditu orrialde guztiak. *Herria, nazioa, estatua... eta euskararekin zer?* du izenburu 208. zenbakiak. Euskalgintzaren eta abertzaletasunaren arteko dibortzio kanpaez, euskalgintzak diskurtsoak berritzeko duen premiez aritu dira besteak beste ondoko egileak: Alaitz Aizpuru, Haritz Garmendia, Koldo Izagirre, Unai Apaolaza, Joxe Manuel Odriozola, Jule Goikoetxea, Eduardo Apodaka eta Idurre Eskisabel.

EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

Euskaltel, finantza marrazoetara jaurtita?

EUSKALTEL 1995ean jaio zen, telekomunikazio enpresa publiko moduan. 200 milioi pezetako kapitalarekin hasi zuen ibilbidea: Eusko Jaurlaritzak %40 jarri zuen eta aurrezki kutxek %40. Aurki guztiz pribatizatuta eta euskal izaera oro galduta gera liteke. Beste behin ere ikusten ari gara nola enpresa publikoen etekinak pribatizatu egiten diren, galerak sozializatzen diren bitartean. Euskaltel lehenengo kasuaren adibide garbia litzateke —erreskatatutako bankuak, Bankia buru, bigarrenengo kasuari lotuta daude—. Euskal enpresaren akziodun diren atzerriko bi inbertsio funtsek, berriz, sekulako dirutza jasoko lukete pribatizazioarekin.

Uztailean Euskaltel burtsara irtengo da eta 1.500 milioi euroko balioa izango duela iragarri dute; 2012an aldiz 475 milioi euro balio zituen. Euskal kutxek, Eusko Jaurlaritzak, Endesak, Mondragon Taldeak eta Iberdrolak —partzialki— egindako desinbertsioekin, Kutxabank Euskaltelen %49,9rekin geratu zen, eta Trilantic eta Inveindustrial kapitalaren parte izatera igaro ziren 228 milioi euroekin, enpresaren %48,1 kontrolatuz. Hau da, inbertsio funts horiek bi urte eta erdian euren akzioen balioa hirukoiztu dute.

Eta hori gutxi balitz, aurreikusitako burtsara irtetean Euskaltelen hiru akzionistek, —Kutxabank eta aipatu bi inbertsio funtsak— 200 milioi euroko ez ohiko dibiendua jasoko dutela, diru hori bera kobratzeko 300 milioi euroko zorra egin ondoren.

Euskaltel laster burtsara irteteak esan nahi du Euskal Herriko ehun industrialetik urrun dauden beste esku batzuetan eror litekeela bere kontrola. Euskal Herrian errotoetako telekomunikazio enpresa oparoa izan zitekeena, gure zergetatik ateratako diru publikoekin sortua, espekulatzailen eta finantza marrazoen menpe egongo da. Halakoek etekina baizik ez dute helburu eta horretarako enpresa bera desagerrarazi edo beste operatzaile batzuekin fusionatu behar badute, horixe egingo dute. Zoriturrez, tarte gutxi dago jadanik hori eragozteko. Baina saiatu beharko ginateke. Kutxabankekin erantzukizun handia dauka horretan. Herritarrek, behinik behin, jakin dezatela zer ari diren egosten euskal enpresa horretan.

Juan Mari Arregi

Siria, Myanmar... inoizko errefuxiatu krisi larriena oraintxe

Milioika iheslari bizi dira miseriara kondenaturik II. Mundu Gerraz geroztik gertatu den lekualdatze krisirik larrienagatik.

Amnesty International erakundeak eman ditu egoeraren xehetasunak txosten beldurgarri batean, zeinetan kritikatzeko baitu munduko liderrek gai honetan darabilten utzikeria. 50 milioi pertsona kasik laguntzarik gabe abandonaturik.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

IMAJINATU 624.800 ERREFUXIATU dauzkagula Euskal Herrian azken hiru urteotan iritsiak, zazpi probintzietan bizi garen 3.124.259 laguntzatik bostetik bat. Gipuzkoan sartu 142.000 errefuxiatu kolpetik. 213.000 errefuxiatu Bizkaian. Edo 128.000 Nafarroan, 65.000 Araban, Iparraldean 56.000... Proporzio horretako eromena bizi dute gaur Libanon, non pilatzen baitira Siria-ko gerrari ihesi joandakoetatik asko. Bonba bat Europako atarian.

Datuok eta askoz gehiago eskaini ditu Amnesty Internationalek (AI) bere *"The Global Refugee Crisis: A Conspiracy of Neglect"* (Mundu mailako errefuxiatu krisia: utzikeriaren konspirazioa) dossier gordinetan. Munduan etxetik ihes eginik noraezean dabilten 50 milioi jendeen tragedia kontatzen du, II. Mundu Gerraz geroztik planetak ezagutu duen exodo masiboenaren kopuruak, zergatiak eta ondorioak aurkeztu ditu AIk eta hauek arintzeko berehala hartu beharreko neurriak proposatzen.

Txostena krisiaren epizentroan, Beiruten, aurkeztu du Salil Shetty Amnesty Internationalen idazkari orokorrak: "Geure begiz ikusten dugu aro honetako errefuxiatu krisirik okerrera, milioika andre, gizon eta ume bizirauteko borrokan gerra izugarrien, pertsonekin trafikatzeko

duten sareen eta gizalegezko errukia erakusteko ordez interes politiko berekoia zaintzen dituzten gobernuen artean".

Une honetan larrialdi nabarmenena Siriatic ihesi joandako lau milioi errefuxiatuek bizi dute. Horiek dira muga zeharkatu duten herritarrak, zeren eta mugen barruan lekualdatu direnak kontaturik siriarren erdia omen dabil oraintxe bertan nor bere sorterritik alde eginda.

Atzerriratutako siriarren %95 inguruko herrialdeetan dago blokatutik. Libanok gaur dauzkan bost biztanletik bat siriar errefuxiatua da. Libano, Turkia, Irak, Jordania eta Egiptok beren gain daramate jendeok nola edo hala aterpetzeko zama zeren eta, ekainaren 3ko datuak kontatuz, AIk dioenez Nazio Batuen Erakundeak ezin izan du %24an baino gehiagotan ase errefuxiatuontzat eskatu zaion laguntza eskea.

Munduko gainerako herrialdeek soilik 8.442 siriar hartzeko eskaintza egin dute... NBEren errefuxiatuen babeserako erakundeak zentsatuta dauzkan eskarien %2,2! Nazioartekak iheslarien behar humanitarioak konpontzen aski lagundu ez dutenez, jendetza izugarri hori etxean hartu duten estatuak hasi dira horiei sarbidea oztopatzen.

NBEren Errefuxiatuen Agentziarentzako (UNHCR ingelesezko sigletan) N.Daoudek egindako argazkian, emakume eta hurrez osatutako taldea Siriako gerratik ihesi Libanorako bidean. Libano, Turkia, Jordania eta Iraken lau milioi siriar babestu dira; Sirian bertan ia zortzi milioi dabilten etxetik urrun. Mundu osoan 50 milioi pertsona errefuxiatu gisa egoera larrian dagoela eta, Amnesty Internationalek eskatu du nazioarteko konferentzia antolatzea NBEren Errefuxiatuentzako Ituna berretsi, iheslarien erantzukizuna estatu denen artean banatu eta horiei laguntzeko egin beharreko gastuak ere elkarrekin partekatzeak. AIk eskatu dituenak azalpenik behar ez dutenak dirudite: ihesi doazen biziak bermatzea lehenestea, NBEk beharrezkotzat jotako errefuxiatu kopuruak mundu guztiak onartzea, errefuxiatuentzako funts bat sortzea... Horien zain ez dira egongo Europako ateetan daudenak.

Baina beti dago gauzak okerragotzeko aukera. 2015 honetan NBEren elikadura programak herrialde horiei %30ean murriztu die laguntza. Libanon 1,2 milioi siriarren artean egoera ahulenean bizi diren 900.000 iheslarietako bakoitzak orain hilean 19 dolarreko laguntza jasotzen du, lehen eskuratzen zituzten 27en ordez. Jordaniako hirietan babestutako hileko 14 dolarretara jaitsi diete janaritarako laguntza. Bizirauteko, goseak gelditzeaz gain, herrialdeetan aurkitu ditzaketen lanik txar eta arriskuetsuenetan jardun beste biderik ez dute.

Errefuxiatuen Itunak porrot

Afrika da AIrentzako bigarren kezka iturri nagusia. Hiru milioi errefuxiatu dabilten noraezean Sahararen hegoaldean. Horietako asko azken urteotako gerretatik ihesi joanak dira: Hego Sudan, Nigeria, Burundi, Afrika Erdiko Errepublika, Kongo, Somalia... Munduko errefuxiatu kanpaleku handiena Keniak dauka, Daab ize-nekoa.

Hala ere, Afrikako iheslariek ez dute mundu aberatsaren arreta handirik pizten, ez behintzat ez badira iristen *patera* eta antzeko ontzietan itsasoz Europako itsas hegiraino. NBEk errefuxiatuak direlakoan



proposatutako babes eskaeretatik oso gutxi lortzen ditu, %10 inguru. Iheslariok Afrikan bertan eraso xenofoboak jasan dituzte.

Ahal izan duten iheslari afrikarrak Mediterraneo itsasoraino heldu eta hau zeharkatzen ahalegindu dira, azken hilabeteotan famatuak egin diren txalupetan. Alk argi eta garbi dio Mediterraneoan gertatu diren hondoratze eta itotze masiboen erantzukizuna dagokiola Europak eta Italiak itsasoa galduentzako zeukaten *Mare Nostrum* operazioa ezabatu eta operazio txikiago batez ordezkatzeari.

Afrikako eta Siriako krisiekin alderatuta kopuruetan txikia dirudien arren Asian Bengalako golkoan 2015ean gertatzen ari dena, Alk

hau ere nabarmendu nahi izan du gaur mundu osoko agintariek erbestertuen aterpetzeko derrigortasuna zangopean zein erraz erabiltzen duten adierazgarri. Rohingya etniko 25.000 jende ibili dira Myanmar eta Bangladeshetik ihesi Tailandiara iritsi nahian, itsaso zabalera kondenaturik, inork ez zituelako etxean hartu nahi.

Maiatzean bertan oraindik 8.000 zeuden Tailandiako kostako parean txalupetatik lehorreratzeari galarazita. Batean 800 pertsona bapora zahar batean, bestean 300, ez janariarik, ez urik, ez erregairik, are gutxiago sendagairik. Tailandia, Indonesia edo Malaysiako armadek gehienez ere bizirauteko jan-edanak eman dizkie, baina kostara hurbiltzeko

baimenik ez. Migrazioen Munduko Erakundeak sarkasmoz *maritime ping-pong* bataiatu duen taktikaz.

Amnesty Internationalek dossierrean nabarmendu du Mediterraneoan, Afrikan eta Bengalako itsasoan gertatzen diren heriotza ikusgarriak ez direla inolako gatazkaren ondorio, nazioarteko erakundeek eta estatuetako agintariek aurreikusi eta prebenitu zitzaketen gertakizunak baizik.

“Errefuxiatuen krisi handi hau —dio AIren txostenak— ezin da aurkeztu giza trafiko eta kontrabando arazo bat bailitzan, beren huts egiteak ezkutatzeko gobernuek egiten duten moduan”. Gatazken garrantzirik harago, nazioartea ari da huts egiten arriskuan dauden iheslariak babesa emateko orduan.

“II. Mundu Gerraren amaieran nazioarteak antolatu zuen NBERen Errefuxiatuei buruzko Ituna, etxera itzultzerakoan jazarpena eta desmasiak jasan zitzaketen herritarrak laguntzeko”. AIren ustean Itun horrek babesa eman die dozenaka milioika jenderi geroztik. Itunak oinarritzat dauka nazioartearen erantzukizuna eta kosteen konpartitzea, ulertuz errefuxiatu krisiak ez dituela bere bizkar hartu behar herrialde bakar batek edo bakan batzuek. “Itunaren oinarri honi gaur egun ezikusia egiten zaio, horrek dakartzan ondorio beldurgarriekin. Iheslariarentzako nazioarteko babes sistema txikituta dago gaur”.

2020a artean urtero 300.000 errefuxiatu aterpetu beharko omen dira. Aurretik nazioarteko itunak biziberritzen ez badira, lege ezinean legez kontra sartu beharko dute. ■



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira



Indar handiagoa behar da

GURE ESKU DAGO ekimenak beste indar erakustaldi handia egin zuen joan den igandean, dozenaka milaka pertsona kalera ateraz eta erabakitze eskubidea aldarrikatuz. Festa giroz egin zen berriz aldarrikapena, iazko ekaineko giza katean bezala. Eta helburu oso zehatz batekin, berandu baino lehen, uneraren batean euskal herritarrek erabaki eskubidea hautes-tontzietara eramatea.

Aipatu da, gainera, datorren urtean helburua hainbat herritara eramango dela: Dima, Ispaster, Hernani, Gipuzkoako Goierri... Orain aldarrikatu eta bihar erabaki. Joan den igandean, jostunek borondate anitz eta desberdinak josi zituzten norabide horretan, eta orain badirudi hurrengo pausoan hautatutako herrietan eltzea sutan jartzeko ordua iritsi dela. Datorren urtean ikusiko dira emaitzak, baina hauek onak izateko bada faktore bat Gure Esku Dago ekimenaren oinarrian dagoena eta ahaztu ezin dena: herritarrak eta gizartea indartzea, hauek erabaki eskubidean sinesten duten alderdiak ezinbestean norabide horretan jar ditzaten. Eta hori gehiago kostako da. Joan den igandean erakutsitakoa baino indar gehiago behar da herri oso bat norabide horretan jartzeko.

Igandekoaren itzalen artean dago San Mames, Anoeta eta Iruñeko zezen plaza ez bete izana. Twitterreko traolak #baietzbo-stakbete zioen. Bada ez, ez dira bete, eta hori ere oso kontuan hartu beharko du Gure Esku Dagok eta ondorioak atera. Egon-go dira hainbat arrazoi, eguraldia, formatoa, helburu handiegia, mezuaren egokitasuna, udal hauteskundeak... kontua da ez dela

lortu motibatzea eta erakartzea iazko giza katean parte hartu zuten herritarren zati oso handia.

KONFRONTAZIOA berba klabeetako izan daiteke analisi honetan. Gure Esku Dagok elkarren aurka ibili diren gizarte sektoreak bildu gura ditu erabaki eskubidearen inguruan, bai elkarren aurka ibili diren sektore abertzaleak, bai abertzale-espainiarzale dikotomiaren inguruan kokatzen direnak. Guztiak bat, eskubide demokratiko baten inguruan.

*Eusko Legebiltzarreko
autogobernu
ponentzian zein leku
eta garrantzi izango du
erabaki eskubideak?*

Hori islatu du Katalunian ANCK bultzatu duen prozesuak eta, modu desberdinean baina Eskoziako prozesuak ere bai. Katalunian Espainiaren jarrera itxi eta erasokorra klabea izan da mugimendu soberanista elikatze-ko. Eskozian alderantziz izan da, SNP eta bere esparru instituzional osoak gidatu du prozesua eta herritarrak erabaki eskubidera eraman. Ñabardura asko egin badaitezke ere, Kataluniako prozesua gehiago sostengatu da Espainiaren lehian eta Eskozia gehiago britainiarren kultura demokratikoan.

Nahiko litzateke hemen ere britainiarren kultura hori, baina denak adierazten du Espainian konfrontazioaren eskemak garrantzi handiagoa izango duela etorki-

zunean. Eta Espainian eta Euskal Herrian iraganean izan diren konfrontazio ereduak kontuan izanda, komeni da azpimarratzea lehia hori erabat demokratikoa eta zibila izan behar duela, baina konfrontazio. Espainiako ezker berriak ekar lezake epe ertainera bestelako ikusmolderik, baina gaurkoz aukera hori urruti ikusten da, baita datozen hauteskunde orokorretarako herritarren batasunaren formula gauzatuko balitz ere.

AURRERANTZEAN ere ezinbestekoak izango dira masa mugimendu handiak, baina hori baino garrantzitsuagoa izango da erabaki eskubidea elikatze egunero hartuko diren erabakiak norabide horretan bultzatzea. Badira esparruak horretarako: Eusko Legebiltzarreko autogobernu ponentzian zein leku eta garrantzi izango du erabaki eskubideak? Nafarroako Gobernu berriak nola zabalduko du, adibidez, D ereduaren eremu ez euskaldunean?; nola erantzuten zaie Auzitegi Konstituzionalak etengabe jartzen dituen helegiteei?; Udalbiltzarekin edo gabe, nola gauzatu behar da hiru lurralde administratiboetako erakundeek elkar lana eguneroko oso gauza zehatzetan?; euskal gizarteari bete-betean eragiten dion bake prozesua bideratzeko ahalmenik ez duen gizarteak, bere etorkizunaz erabakitze indarrik izango ote du?

Galderak eta esparruak bata bestearen atzetik jar daitezke. Horietan guztietan eta gehiagotan Gure Esku Dagoren eta herritarren presioa nabaritzen bada, euskal gizarteak hautetsontzian ere erabakiko du, bestela nekez. ■

ASTE HONETAKO Zozketa



Argiako harpidedunentzat



Maddiola Landetxea

Gau bat astean zehar,
gosaria eta sparekin

Paseo Padre Orkolaga 161
Donostia Gipuzkoa
www.agroturismomaddiola.com/eu/

1



Eureka! Zientzia museoa

2 lagunentzako
bina sarrera

Mikeletegi, 43
Donostia GIPUZKOA
www.euskalmuseoa.es

2




Artium

Arte Garaikideko
Euskal Zentro-Museoa

5 lagunentzako
bina sarrera

Frantzia, 24
Gasteiz ARABA
www.artium.org

3



Iruñeko Planetarioa

3 lagunentzako
bina sarrera

Antso Ramirez, z/g
Iruñea NAFARROA
www.planetario.org

4



Erlea gure sendagile

liburua

www.argia.eus/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2465. Argia)

GARRAXI JATETXEA

Belen Irastorza Armendariz (Zaldibia)

EKAINBERRI

M Angeles Azpiroz Harizurieta (Barañain)

Jose Garaizabal Aizpurua (Elorrio)

Aintzane Linaza Etxebarria (Gasteiz)

JORGE OTEIZA

Xabi Terreros Gartzia (Iruñea)

Eñaut Solaguren Maguregui (Aia)

ORUBE ABANDONATUAK

Aitor Sangroniz Akarregi (Santurtzi)

Olatz Usabiaga Errazkin (Donostia)

OKATXU

Raco De La Corbella (Valencia)

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 37 15 45 • gunea@argia.eus

www.argia.eus/gunea



* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

berdindu!

Lesbiana, gay, trans eta
bisexualei arreta emateko zerbitzua.

Servicio de atención a Lesbianas,
gays, trans y bisexuales.

Zer da berdindu?

Sexu- eta genero-aniztasunari buruz
informazioa eta arreta emateko zerbitzua
da, Eusko Jaurlaritzarena.

Zer eskaintzen du?

- Informazioa eta arreta ematen die lesbianeiei, gayei, transei eta bisexualei, bai eta horien senitartekoei eta ingurukoei ere.
- Informazioa eta arreta ematen die hezkuntza-komunitateari, gizarte-eragileei eta profesionalei, komunikabideei eta, oro har, jendarteari. Homofobia eta transfobia deuseztatzea du xede.



Araba Zapateria, 39 - bajo

01001 Vitoria-Gasteiz

945 257 077 berdindu.araba@aldarte.org

Bizkaia Berastegui, 5 - 5º

dptos. 8 y 9º 48001 Bilbao

944 237 296 berdindu.bizkaia@aldarte.org

Gipuzkoa Kolon, 50

20002 Donostia-San Sebastián

943 451 722 berdindu.gipuzkoa@gehitu.org

Zerbitzu ibiltaria: / Servicio itinerante:

berdindu.ibiltaria@errespetuz.org 675 459 317

C/ Benidorm Nº 1 Entreplanta izq-drch 48015 Bilbao

berdindu.eskolak@guztiok.org

649 834 038 / 653 721 725

berdindu.familiak@aldarte.org

944 23 72 96 / 608 540 566

berdindu!

Zerbitzuaren balorazioa
Valoración del servicio

Donostia-San Sebastián, 1
01010 Vitoria-Gasteiz

berdindu@euskadi.eus



PERSONA
HELBURU

COMPROMISO CON
LAS PERSONAS

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO